

aikor.

TOKIKOM

2024ko iraila - #250



Hordagoko bikotea

IRAIDE GORROTXATEGI
eta AITOR TOLOSA

ZAMUDIO

Porrotx eta Marimotots

EZ GARA JAITSIKO!



URRIAK 18
BARIKUA

18,00 ETAN
ZAMUDIOKO KIROLDEGIAN

SARRERAK 8€

SARRERAK SALGAI :

www.zamudio.eus (jarduerak eta bonoak)
Zamudion: Liburudendan eta Estankoan
Derion: Tahona Uribe Okintegian (Aldekone)

BAZKIDEENTZAT 6€:

Irailaren 30an eta Urriaren 1 eta 2an,
18.00etatik 19.00tara Lagatzuko lokalean

aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Itxaso Marina

Maketatzailea:

Aner Mentxaka

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:

Iñaki Astorkiza

Kolaboratzaileak:

Udane Goikoetxea
Laurentzi Hormaetxe
Beste Bira
Xabier Díaz
Txoribikers
@txiribita_mundi
EMAUS
Idoia Andrés
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka

Banaketa:

Eragin

Inprimategia:

Gertu

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

944 523 447 · 688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.



SUMARIOA

- 4 Editoriala
Iritzia
- 5 Berri laburrak
- 12 Gurean izango da
Maitane Monroy
- 14 Gaztea eta
Izaro Rojo Batiz
- 16 Menditik patxadaz...
Arabako ibilbide historikotik (eta III)
- 18 Txoriberri
- 20 **Iraide Gorrotxategi eta Aitor Tolosa**
- 24 **Zamudion Kultura Bere Bidean**
- 26 **Trebatu Txorierrri**
- 28 **Berbagazte**
- 30 **Lezamako mugetatik**
- 32 EMAUS
- 33 Teknologia
- 34 Herbarioa
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EDITORIALA

Azala berritu dugu

Handitu ahala, narrastiak azal-berritu egiten dira, euren gorputzaren tamaina berrira egokitzeko. AIKOR aldizkariak ere azala berritu du, gaur egungo garaietara moldatzeko eta erronka berriei aurre egiteko. Azala berritzea ikasturte berriarekin batera egin du eta 250. zenbakia kaleratu duela: etapa berriaren hasiera da. Zalantzetatik haratago, etapa berriek

ilusioa ekartzen dute, eta batez ere berriro eraikitzeo aukera; hau da, behin eta berriz saiatu, erabaki, hazi eta sortzeko aukera. Azala berritzeko prozesuan, organikotasuna hartu dugu oinarritzat, eta garrantzia eman diogu alderdi grafikoari. Horrela, zuriunez eta baliabide grafikoaz baliatu gara diseinu atsegina egiteko, eta forma biribilak eta kolore lasaigarriak erabili ditugu testuak

irakurtzea errazteko. Azal freskoa eta gaurkotua izan da prozesuaren emaitza. Udazkena lurra berritzeko garaia zen us-tea zegoen antzina, non hosto zaharrak erortzen baitziren, belar, kolore eta hasiera berriei bide emateko. Eta udazkenean hain zuzen berritu du AIKOR aldizkariak azala, urtaro honetan zein hurrengoetan topatuko dituen erronka eta aukerei ongiatorria emateko.

IRITZIA

Oratoria galduz goaz:
reverb edo *never*

UDANE GOIKOETXEA
Kazetaria eta irakaslea



Arrainak ispiluari aurrez-aurre begiratzen badeutso, bere burua marra mehea baino ez dala ikusiko dau, ez bere osotasunaren edertasuna, distira. Horixe berori gertatzen jaku oratoria aintzat hartzen ez badogu.

10etik 7 pertsonak daukie publikoaren aurrean berba egiteko trabaren bat, ehuneko 75ak antsietatea sentitzen dau, UOCek egindako inkesta baten arabera. Sasoi digitalean jasotako datuetan oinarritzen bagara, oinarritzko gaitasun hau lantzeko premia gero eta handiagoa daukagu, bai etxeko zein kaleko harremanetan, baita ikus-entzunezkoetan edota eskolan be. Ahozkotasunak ez dau bere funtzinoa galdu, e-mailek, sare sozialek, whatsapppek eta emotikonoek ordezkatu daben arren; bikaintasunez egiten danean, indartsua eta inpaktuzkoa da ahozkotasun hori.

Ondo baino hobeto dakigunez, informazioz inguratuta bizi gara, konekta-

tuta. Hori dala eta, jakina da ahaleginik handiena ez dala informazioa lortzea, ezpada ze informazioa prozesatzea, laburtzea eta, batez be, eraginkortasunez komunikatzen jakitea.

Berbazko zein ez berbazko komunikazioa eta neurokomunikazioa (entzuten dagoanagazko konexioa) lantzen doguz Unibertsitatean, Komunikazio Fakultatean. Bozeramaile garen neurrian, estiloak estilo, diskurtsoaren egitura izan ohi dogu abiaburu: *inventio* (argudioak), *dispositio* (ordena), *elocutio* (egoki formulatzea), *memoria* (ikasi) eta *actio* (esan edo adierazi). Bada, teoria oinarri harturik, azken baten, komunikatzeko gaitasuna garatzea oinarritzko dala irakasten da, maila pertsonalean eta profesionalean. Helburua norbere burua (eta ondokoak) behin eta barrero entzunez, modu eraginkorrean komunikatzea da eta horretarako saio pertsonalizatu na-

hiz modulu espezifikoa egiten dira.

Horixe falta jakulako oratoria menperatzeko, entzun eta hausnartzea, musikako terminoak gogora dakarskun moduan, erreberberazioz. *Reverb*-a edo erreberberazioa soinuaren isladapenaren ondorioa da -jatorritzko soinuaren sakonera espazialaren eta zabaltasunaren sentsazioa emoten deusan fenomeno-. Hau da, esan egiten dogu eta, esan ostean soinua itzultzen jaku, norbere burua barrero entzunez, hausnarketari bidea zabalduz; horretarako aukerea emoten dau *reverb*-ak.

Egunerokotasunaren aingura askatu ezinik jarraitzen dogu, itolarria eta urgentzia lehenetsiz. Astirik be ez dago gure ahotsa entzuteko, ez barrukoak ez kanpokoak. Geurea da aukerea. Zeren aldeko apostua egingo zeunke, irakurle, oratoria menperatu, hau da, *reverb* edo norbere burua sekula ez entzun, *never*?

BERRI LABURRAK

Sakatuk festa handia antolatu du X. urteurrena ospatzeko



Sakatu Txorierriko elektrotxaranga 10 urte daramatza Euskal Herriko jaiak musikaz girotzen. Urteurrena ospatzeko, festa handia antolatu dute Baserri Antzokian, Derion, urriaren 26rako. Musikaz eta lagunez betetako jaiak izango da, jakina.

Festa 17:00etan hasiko da “Sakapintxada” baten eskutik. Ondoren, 18:00etan, bakarrik izango dira, eta agertokira igoko dira Julen Pagazaurtundua, Asier Galarza eta Esti Curiel. Anfitrioiek, Sakatuko kideek, musika-saioa egingo

dute 19:00etatik aurrera, eta afaltzeko aukera egongo da Baserri Antzokian bertan. Festa biribiltzeko, Akatz Bilboko ska taldeak joko du 23:00ak aldean, eta ostean dj batek musika ipiniko du. “Gure gertuko jendearekin eta gurekin ospatu nahi duen jende guztiarekin egun berezia pasatzea espero dugu”, adierazi dute Sakatukoek. “Beste aldetik, 10. urteurrena ospatzeaz gainera, aurtengo bira amaitzeko ekitaldi gogoangarria eskaini nahi dugu”.

Auzoen beharrianak ezagutzeko ekimena ipini du martxan Zamudioko Udalak

“Zamudio auzoak” parte hartzeko prozesua martxan ipini du Zamudioko Udalak auzo hauetan: Galbarriatu, Santi Mami, Aranoltza, Oxinaga, Sandoni, Arteaga, Lukundiz, Geldo eta Daño. Helburua da auzotarren beharrianak zuzenean ezagutzea, horiei erantzuna eman ahal izateko

Prozesua irailean hasi zen. Bilera egin zen Zamudiotorren, eta horrezaz gainera, bost bilera telematikoko egingo dira aurrerantzean, auzoetako beharrianak espezifikoko aztertzeak. Iradokizun-postontzia ere ipini da udaletxeko sarreran, eta herritarrek euren iradokizunak helarazi ditzakete helbide elektronikoko bati idatzita.

Lander Aretxabaleta Zamudioko alkatearen esanetan, “udalak konpromiso handia du herriko auzoekin, eta euren beharrianak tokian bertan ikusi behar dira”. Azaldu duenez, “entzuteko prozesua ez da administrazioko ariketa hutsa, elkarriketa irekia baino. Horrela, auzoen beharrianak ezagutu ahalko dira, eta ahal den neurrian udal-programara ekarri”. Horri dagokionez, gogora ekarri du “egiten diren proposamenak udal-eskumenekoak izan behar direla”. Udalak eskaera bakoitza aztertze eta ahal den neurrian ezartzeko konpromisoa duela esan du Aretxabaletak. Horretarako, kontuan hartuko da adostasun handiena duten eskaerak zeintzuk diren, baita horien bideragarritasun tekniko eta eko-

nomikoa. “Aurrekontu-, eskumen- eta lege-mugak daude eta”.

Inkestak baliagarriak izango dira beharrianen buruz hasierako ideia egiteko, eta hori osatzeko, bost bilera telematikoko egingo dira urrian: hilaren 16an, Galbarriatu txokoa, Santi Mami eta Galbarriatu auzoak; hilaren 18an, Sandoni baselizan, Aranoltza, Oxinaga eta Sandoni auzoak; hilaren 23an, Zamudiotorren, Arteaga auzoak; hilaren 25ean, Zamudiotorren, Lukundiz; eta hilaren 30ean, Geldo txokoa, Geldo eta Daño auzoak. Saio guztiak 18:00etan

izango dira eta ordu bi iraungo dute. “Auzotar guztiak animatzen ditugu ekintzan parte hartzerantz”, adierazi du Aretxabaletak. “Haien parte-hartze aktiboa behar dugu, auzotarren nahiei zintzo erantzun ahal izateko”. Iradokizunak batu, eta azterketa tekniko eta ekonomikoa egingo da, euren bideragarritasuna aztertzeak.

Beste aldetik, Zamudioko Udalak aurreratu du urrian eta azaroan beste ekimen bat egingo dela herrigunea hobetzeko, eta herritarrek horretan ere parte hartzeko aukera izango dutela.



BERRI LABURRAK

Txorierriko bendejeren memoria berreskuratuko da Ondarearen Jardunaldietan

“Bide, sare eta loturen ondarea” lelopean, Ondarearen Europako Jardunaldien helburua da gizartea sentikor bihurtzea kultura-ondarea ezagutzeak, baloratzeak eta babesteak duten garrantziarekiko. Horretarako, urrian 200 ekitaldi baino gehiago egingo dira Bizkaiko 72 udalerritan. Txorierrin ere ibilbide gidatuak eta hitzaldiak antolatu dira, eta haien artean aipatzekoa da bendejerek Bilboraino egiten zuten bidea gogora ekarriko dela.

Txorierriko bendejeren ibilbidea urriaren 19an izango da, 10:00etan. Hitzordua Lezamako tren-geltokiko aparkalekuan ipini dute, eta handik bendejerek, esnea eta baratzeak produktua saltzeko, egunero Bilboraino egiten zuten bidaia gogoratuko dute. Bidaia bai asto gainean, bai Lezama, Zamudio, Derio eta Sondika Bilborekin lotzen zituen trenean, egiten zuten. Ibilbide gidatuaren helburua da Txorierriko bendejeren memoria berreskuratzea, baserrietatik azoketara egindako urratsei jarraituz. Izena emateko, 946 156 612 telefono-zenbakira deitu behar da, edo jataondo@jataondo.org helbide-elektronikora idatzi.

Nolanahi ere, urrian ekintza gehiago izango dira Txorierrin. Horrela, hilaren 5ean, 19an eta 26an, ibilbide gidatua egingo da Urdaneta Loiuko eskolako Arboretumetik, bertan dauden zuhaitz-espeziak eta haien bitxikeriak ezagutzeko.

Gainera, umeentzako jarduera osagarriak izango dira, hala nola inurri begiekin ikustea eta zuhaitzen taupadak entzutea. Ekintza 10:00etan hasiko da, eta izena emateko, mezua idatzi behar da museo.ciencias@colegiourdaneta.com helbide elektronikora.

Amagoia Guezuraga herriko historialariaren gidaritzapean, urriaren 19an, 11:00etan, “Bideak eta ubideak, gure ondarearen lekuko” ibilbidea izango da Zamudion. Sabino Arana plazatik abiatuta, taldeak udalerriko leku eta errota esanguratsuenak bisitatuko ditu, eta ondare materiala eta inmateriale lotuko dira, zamudioztarren jarduerak, ohi-turak eta harreman-sarea ezagutzeko. Izena emateko, Zamudioko Udalera deitu behar da: 944 060 990.

Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboak antolatuta, urriaren 22an, 16:30ean, “Bide guztiek artxibora daramate” hitzaldia eta erakusketa izango dira Derion. Artxibategia Seminarioan dago, eta bisitariak ezagutuko dituzte bertako agerietan jasotako gertaerak eta loturak, zeinak lagungarriak baitira gure ohi-turak, ondarea eta historia ezagutzeko. Izena emateko, 944 062 493 telefono-zenbakira deitu behar da, edo katalog@ahab-beha.org helbide elektronikora idatzi.

Bizkaiko Zin-bidea da Bizkaiko Jaunek foruak zin egiteko egiten zuten ibilbidea. Garai batean, funtsezko ekitaldia

izan zen, jaunen eta bizkaitarren arteko harremana adosten eta oinarritzen zuelako. Urriaren 26an, 08:30ean, autobusez aterako da Bilboko Unamuno plazatik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren identitate politikoan zehar ibilbidea egiteko, eta pasatuko da Larrabetzutik eta Gernika-Lumotik, ibilbidea Bermeon amaitzeko. Izena ematea www.ondareabizkaia.eus webgunean egin daiteke, edo 944 066 340 telefono-zenbakira deituta.

Azkenik, Edestiaurre arkeologia-elkar-tearen eskutik, urriaren 26an ere “Burdin Hesiaren puskaketa. Gaztelumenditik Gamizmendira” ibilbide gidatua egingo da. Hitzordua 10:00etan ipini dute Gaztelumendiren gailurrean, lehen gurutzera zegoen tokian, eta handik abiatuta, parte-hartzaileak ibiliko dira Eusko Gudarosteko soldatuek, Bilbo defendatzeko, 1937ko maiatzetik ekainera bitartean egindako bideetatik. Era berean, metrailadore-kokalekuak bisitatuko dituzte, Larrabetzuko Gaztelumendin hasi eta Gamiz-Fikako Gamizmendiren mendebaldean amaituko den lau kilometroko ibilbidean zehar. Izena emateko, 946 153 114 telefono-zenbakira deitu behar da.

Esan moduan, Ondare Jardunaldien baitan 200 ekintza baino gehiago egingo dira Bizkaian, urrian. Horiek guztiak www.ondareabizkaia.eus webgunean kontsultatu daitezke.

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

KURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantleuregoiti.com

uribe

EKOPLANAK 2024

BERRI LABURRAK

familia artean

Zatoz familian gozatzera udazkenik landatarrenaz eta ekologikoenaz Uribe eskualdera.

Eman izena gure ekoplanetan, bisita gidatuak herrietara eta nekazal eta abeltzain ustiatagietara izango ditugu.

1€

DATA	ORDUTEGIA	BISITA GIDATUAK
IRAILA		
21	12:00-13:00	MUSTAI ORTUA (Maruri-Jatabe)
22	12:00-13:00	GOREKO ETA LURAMAK (Gamiz-Fika)
28	12:00-13:00	BIORTZATXU (Arrieta)
29	11:00-12:30	LOIU
URRIA		
5	11:00-13:00	LAUKIZ
6	11:00-13:00	LEZAMA
13	11:00-12:30	ARRIETA
19	12:30-13:30	BUTROEKOAK (Gatika)
20	12:00-13:00	ITTURBALTZA ARTISAU ELIKAGAIK (Gamiz-Fika)

IZENA EMAN

uribe.eu/ms

Euskara sustatzeko plan estrategikoa egingo da Larrabetzun

Larrabetzu udalerrri euskalduna da, eta azken datu ofizialen arabera, herritarren % 73,8k badaki euskara. Hala ere, hango udalak adierazi duenez, kaleko eta etxeko erabilek nabarmen egin du behera, eta horrek bereziki kezkatzen ditu. “Larrabetzun euskaraz bizitzen jarraitu nahi dugu, eta, horretarako, datozen urteetarako plangintza osatu nahi dugu”. Larrabetzun euskara sustatzeko plan estrategikoaren oinarria da herritarren iritzia, eta hori ezagutzeko, prozesu bat martxan ipini dute udalak eta Darabilguk elkarteak UEMArekin elkarlanean.

Plangintzaren strategiak zehaztu eta ekintzak identifikatzeko, galdetegi bat zabaldu da herritarren artean, eta saio irekia egin da irailean. Urrirako, beste saio ireki bat antolatu da. Zehatz-mehatz, hilaren 8an izango da Anguleri kultur etxean, 18:00etatik 19:30era. “Erakundeoi ere badagokigu euskaraz egiteko aukera zabaltzea eta bultzatzea, eta erraztasunak ematea herritar eta eragileei. Hori da Larrabetzuko Udalaren konpromisoa”.

BERRI LABURRAK



Goiherri munduko txapeladuna da 23 urtez azpiko kategoria mistoan

Lur Gaineko Sokatira Munduko Txapelketa izan da Alemanian, eta Goiherri Erandioko taldeak bost domina lortu ditu bertan: hiru, klubuen kategorian, eta bi, Euskal Selektzioarekin. Klubuen arteko lehiaketan, Erandiokoek urrezko domina eskuratu zuten 23 urtez azpiko kategoria mistoan, 560 kiloetan, eta hortaz, munduko txapeladunak izan ziren Ingalaterrako taldeari irabazita.

Gainera, zilarrezko domina bi eskuratu zituzten: bata, gizonen kategorian, 560 kiloetan; eta bestea, emakumezkoetan, 23 urtez azpiko lehiari, 500 kiloetan. Beste aldetik, Euskal Selektzioarekin, Goiherriko brontzezko bi domina lortu ditu: bata 23 urtez azpiko emakumeen kategorian, 500 kilotan; eta bestea, 23 urtez azpiko kategoria mistoan, 560 kiloetan.

OHIKO
LEKUETAN
SALGAI

Zorte on!

98660

BERRI LABURRAK



Aretoetako bira aurkeztu du J Martinak

Katalin eta Ane Barcena Larrabetzuko ahizpek J Martina pop elektroniko taldea osatzen dute Javier Jorajuria nafartarrarekin batera. Taldeak udazkeneko zuzenekoie ekingo die datozen hilabeteetan, euren azken lana, *Negu Gorri*, aretoetara eramateko. Euskal areto nagusiez gain, Bartzelonan, Madrilan, Oviedon eta Santiago de Compostelan izango dira.

Udako kontzertuen ostean, taldeak iragarri du barruko emanaldiak egingo dituztela urritik martxora arte: urriak 5, Bartzelonan (Taro aretoa); urriak 10, Madrilan (Café La Palma); abenduak 6, Oviedon (La Lata de Zinc); abenduak 7, Santiago

(Moon aretoa); abenduak 21, Gasteizen (Jimmy Jazz); abenduak 27, Bilbon (Kafe Antzokia); urtarrilak 3, Donostian (Dababada); otsailak 22, Azpeitian (San Agustín) eta martxoak 1, Atarrabian (Totem aretoa).

Negu Gorri (Balaunka, 2024) euren bigarren lana da, eta apirilean kalera-tu zuten. Azaldu moduan, gazte bezala bizitzea tokatu zaien krisialdi garai nahasiari estuki lotutako egoerek eta ideiek definitu dute albumaren kontzeptua: melankolia, haserre, etsipena, baina baita esperantza, argia eta borrokarako grina ere.

Arriortua, zilarra eta brontzea munduko txapelketan


Munduko Txirrindularitza Txapelketa Zurichen egin da, eta Imanol Arriortua Zorrilla derioztarrak bi domina lortu ditu Txirrindularitza Egokitutako Tandem Txapelketan: alde batetik, zilarrezko domina eskuratu du errepideko proban, eta bestetik, brontzezko domina erlojupeko proban. Arriortuak Fran Garcia Rus izan du bikotekide. "Oso pozik nago, nire lehen munduko txapelketan dominak lortu ditudalako, eta itzela da!", adierazi du derioztarrak.

Auto klasikoan kontzentrazioa Loiu

Loiuko Udalak antolatuta, auto klasikoak urriaren 6an itzuliko dira udalerrira; aurtan ekintzaren bederatzigarren edizioa beteko da. Autoak 10:00etatik aurrera helduko dira Loiu plaza, eta 11:30etik 12:00etara errepidera aterako dira, ingurutik ibilbidea egiteko. Ondoren, kopaua egongo da izena ematen dutenentzat, eta 14:30ean sariak banatuko dira. Saiheski-jana izango da doan 15:00etatik aurrera, eta Los Invertebrados taldeak musika-saioa egingo du.

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Denboraldi berria hasiko dute Beste Birako atletak

Beste Bira Txorierriko atletismo taldeak jakinarazi duenez, denboraldia irailean hasi dute Zamudion, eta urrian, gainerako herrietan hasiko dute. Zehatz-mehatz, entrenamenduak astelehenetik barikura, 17:00etatik 18:00etara, egingo dituzte Zamudion; Loiun, barikuetan, 17:00etatik 18:00etara; Derion, barikuetan, 16:30etik 17:30era; eta Sondikan, martitzenetan eta eguenetan (gurasoen elkartearekin ipini behar da harremanetan). Klubean sei urtetik gorako edozein lagunek eman dezake izena: ume, gazte zein heldu. Horretarako, mezua idatzi behar du bestebiraloiu@gmail.com helbide elektronikora, edo 609 417 996 telefono-zenbakira deitu.

Kintada Eguna egingo dute Lezaman

Lezaman, Kintada Eguna antolatu dute urriaren 26rako. Zehatz-mehatz, “multikintada”-bazkaria egiteko asmoa dute, deialdia 2005. urtera arte jaiotakoei egin diete eta. Bazkaria frontoian egingo dute, 15:00etan, eta sagardotegiko menua eskainiko da 30 euroan. Txartelak astelehenetan, irailak 16, ipiniko dira salgai urriaren 12ra arte.

Bazkarirako txartelak leku haueetan erosi ahalko dira: Dañobeitia eta Josune janari-dendetan eta Enaitz, Grisson, Batzoki, Oxangoiti eta Gaztedi tabernetan. Menua, bestalde, hau izango da: urdaiazpikoa eta solomoa, txorizoa sagardo-puntuarekin, bakailao-tortilla, saiheskia txingarretan erreta, gazta irasagar eta intxaurrekin, eta ogia, ura, kupeleko sagardoa, ardoa eta kafea. Alergiarik izanez gero edo menua benagoa nahiago bada, lezamakokintadaeguna@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke.

BERRI LABURRAK



Etxafleruek taldea sortu da Larrabetzun

Larrabetzun, piroteknia, animazioa eta perkusioa uztartzen dituen talde berria sortu da: Larrabetzuko etxafleruek. Taldea barikuan, irailak 13, aurkeztu zuten jendaurrean.

Sustatzaileek kontatu digutenez, asmoa da konpartsa bat osatzea, bere baitan ume, gazte zein heldu hartzeko eta herriko ekitaldiak girotzeko, hala nola Akarbaltz Gaua eta Maskarita Eguna. “Urte batzuk dira Lekittoko Deabruak jaietara etortzen direla, eta asko gusta-

tzen zaigu euren ikuskizuna. Hori dela eta, Larrabetzun ere halako proiektua martxan ipintzea pentsatu genuen. Hasiteko, hurrengo hauek jorratuko ditugu: piroteknia, hankapaluak eta danborrak”.

Larrabetzuko etxafleruek ikuskizun berezia antolatu zuten taldearen aurkezpenari begira, eta bertan, besteak beste, piroteknia izan zen protagonista. Azkenik, aurreratu dutenez, urrian hiru tailer egingo dituzte: maskarak, hankapaluak eta danborrak.

Indarkeria matxistaren kontrako kontakizun laburren lehiaketa antolatu da Sondikan

Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna dela eta, Kontakizun Laburren I. Lehiaketa antolatu du Sondikako Udalak. Gaiak indarkeria matxistaren aurkako borrokari lotuta egon beharko du, edo emakumeek edozein eremutan –fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, soziala, lanekoa...– jasaten dituzten diskriminazio-egoerei. Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da.

Guztira hiru kategoria egongo dira. Lehenengo kategoria da Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. Mailara bitarteko umeentzat. Parte-hartzaileek 250 hitzetik 300 hitzera bitarteko kontakizuna idatzi beharko dute, euskaraz, eta bi sari eman go dira: diploma eta 40 euroko txartela, irabazlearentzat, eta diploma eta 20 euroko txartela, bigarrenarentzat. Bigarren kategoria, bestalde, 13 urtetik 16 urtera

bitarteko gazteentzat da, eta horiek 350-400 hitzera testua idatzi beharko dute, euskaraz edo gaztelaniaz. Kasu honetan ere bi sari izango dira: diploma eta 60 euroko txartela, irabazlearentzat, eta diploma eta 40 euroko txartela, bigarrenarentzat. Azkenik, hirugarren kategoria 16 urtetik gorakoentzat da. Kontakizunak euskaraz edo gaztelaniaz izan ahalko dira, eta 500-550 hitz idatzi beharko dira. Gainerako kategorietan bezala, bi sari banatuko dira: diploma eta 75 euroko txartela irabazlearentzat, eta diploma eta 60 euroko txartela, bigarrenarentzat.

Esan moduan, lanak urriaren 31ra arte aurkeztu ahalko dira udaletxean bertan edo berdintasuna@txorierrri.eus helbide elektronikora bidalita. Txapelketaren oinarriak www.sondika.eus webgunean kontsultatu daitezke.

ekarri zuk ere argindar
faktura goienerera





berriztagarria
bertokoa
euskalduna
kooperatiboa



goiener



 Satimami zumarkalea 26. Bilbo

 goiener@goiener.eus
 www.goiener.eus

946 277 701
900 816 365



T ITXASO MARINA M MAITENA MONROY

GUERAN IZANGO DA

“Berdintasunean hezten dugula pentsatzea da ideia arriskutsuenetariko bat”

MAITENA MONROY

Indarkeria matxistan aditua

Zapata Gorriak talde feministak antolatuta, Monroyk autodefentsa feminista tailerra egingo du urrian, Zamudion. Tailerrean hainbat tresna ipiniko ditu parte-hartzaileen eskura, fisiko denetik harago, indarkeria matxista zer den identifikatu dezaten eta hari aurre egin diezaioten.

Zer da autodefentsa feminista?

Ez da teknika fisikoaren amalgama bat, tresna baizik. Zertarako? Bada, identifikatzeko nola patriarkatuak hainbat sozializazio-bideren bitartez desahalduntzen gaituen, nola subjektibitateak eta nahiak eraikitzen dituen eta nola joera eta iritzi sexistetara lotzen gaituen. Ezin da ikusten ez dena aldatu; beraz, indarkeriari buruz hitz egin baino lehen, hitz egin behar dugu indarkeria zerk sortzen duen eta sistema ez berdinzalea eta misoginoa mantentzeak mesede nori egiten dion. Hortik abiatuta hausnartu dezakegu egoera zehatzen aurrean nola jokatu.

Zein da tailerraren helburua?

Baliabideak ematea sentikor bihurtzeko, prebenitzeko eta indarkeria matxistaren aurrean ez ezik eguneroko matxismoaren aurrean ere erantzun ahal izateko, azken horrek emakumeon segurtasunari, autonomiari eta askatasunari kalte egiten die eta.

Horretarako, zein alderdi landuko dira?

Esan moduan, esparru kontzeptual osoa landuko dugu: espresio fisikoetatik haratago indarkeria matxista zer den, nola iraurarazten den, mesede nori egiten dion... Behin sistema patriarkala ulertuz gero, hobeto jakingo dugu nola jokatu, indarkeriak gure bizitzan ahalik eta leku txikiena izan dezan, jakitun izanda modu bakarria dela sistema patriarkala deuseztatzea.

Urteak daramatzazu tailerrak ematen.

Zer aldatu da? Zer errepikatzen da?

Duda barik, mundua aldatu dugu, baina oraindik ere izugarritzko erresistentziak daude gizonen eta emakumeen arteko harremanak ulertzeko moduak aldatzea dakarten aldaketa sakonagoen aurrean. Gutxi arte «normala» zena ikusgai jarri eta esaten dugu orain, hala ere, patriarkatuak badaki bere burua nola berramatatu, mendekotasuna ahalduntzaile eta desiragarri bihurtzeko, adibidez, neskatuen eta emakumeon hipersexualizazioa,

edo zerbait polita bihurtzeko, esaterako, hirietako zubietara kateatzen gaituen maitasun erromantikoa. Pentsa ezazue norbaiti kateaz lotuta egoteak zer-nolako sinbolismoa duen; hala ere, maitasunaren sinonimo gisa giltzarrapoak jartzea modan ipini da. Adibide gehiago ipini ahal genituzke. Izan ere, berdintasunean hezten dugula pentsatzen dugu, eta hori, beharbada, ideiarik arriskutsuenetariko bat da, eragozten baitigu umeei gaitasuna ematea, bizitzan aurre egin beharko dioten berdintasunik eza antzeman dezaten.

Emakunderi emandako elkarrizketa batean adierazi zenuen tailerretara joaten diren neska gazteek esaten dutela bikotekideari «aurrera egiten» uzten diotela, nahiz eta egiten dabilen ez gustatu... Zer gertatzen ari da?

Informazio asko dago, nire ustez, baina desinformazio asko ere bai. Gazteak gizarte-sareen bidez ikasten dabilta hurrengo hauei lotutako genero-estereo-

tipoak eta rolak: estetika, emakumeek sexu-harremanetan izan behar duten jarrera, emakumezkoen eta gizonezkoen papera... Gizarte-sareetan ez dago ez inongo kontrolrik, ez inongo filtrorik, eta oso algoritmo misoginoa eta krudela erabiltzen da. Klik egin, eta bortxaketak ikusi ahal dituzte, eta sexu-harremanak izango balira bezala normalizatu.

Tradwives edo emazte kontserbado-reen eredia zabaltzen dabilta *influencer* batzuk.

Tradwives-en bidez, patriarkatua gizarte-sareetan ere badago, algoritmoetan, irudiari lotutako presioan, «izateko» desiraren fabrikazioan... Arazoa ez da emakume batek mendekotasuna erreibindikatzen duela; arazoa da mendekotasuna emakume guztientzat «saldu» nahi duela. Gehienetan ez dakigu gazteak zer ikusten dabiltzan, zeren eta, gizarte-sareetara nor bere telefono mugikorretik sartzeaz gainera, harremanak izateko eta komunikatzeko aldaketa gertatzen ari baita. Aldaketa horrek eragina du mundua ulertzeko dugun gaitasunean eta, hortaz, erabakiak autonomia handiagoko posizio batetik hartzeko gaitasunean. Norbaiti jarraitzen badiuzu, hark esaten duen guztia sinetsiko duzu, tartean adimen artifizialik dagoen edo *fake new* den aztertu barik. Gainera,

gizarte-sareetara igotzen denak eragin globala du, eta, momentuz, betikoa, oso zaila baita ezabatzea. Autodefentsa feminista esparru digitalean ere bada tresnetako bat. Hala ere, ezin dugu ahaztu inportanteena dela gune seguruak sortzea, eta momentu honetan lege-hutsune eta inpunitate handia dago ziberindarkeria-motei dagokienez.

“Patriarkatuak badaki bere burua nola berrasmatu, mendekotasuna ahalduntzaile eta desiragarri bihurtzeko”

Zein alderdi jorratu behar dira ume eta gazteekin, harreman egokiak izan ditzaten?

Gizartea maila guztietan aldatzen gabiltza, baina zeregin horretako parte ere bada hauei guztiei aurre egitea: bortxaketa-kultura, afektibitate-eredia, sexualitateari lotutako genero-rol eta estereotipoak, zaintza-lanei lotutakoak, erantzunkidetasunari, botere-banaketari, justiziari...

lotuta daudenak... Gai konplexuak dira, baina gugandik urrun daudela pentsatu arren, egunero heltzen diegu. Batzuetan ez gara oso kontziente, eta, ondorioz, desparekotasuna sustatzen dugu bizitzaren arlo bakoitzean. Parekotasuna bultzatzeko, lehenengo eta behin jakin behar dugu berdintasunik eza zein elementuk iraunarazten duten.

Gizonentzat ere badira autodefentsa feministaren tailerrak?

Ez, ez dut uste euren lekua denik. Errealitate ezberdinetarako tresna berberak erabiltzen baditugu, ez dugu baten bat ondo tratatuko, edo, are okerrago, ez dugu kontuan hartuko. Patriarkatua ezabatzeko ekuazioaren parte dira gizonak, baina euren errealitatea eta egoera ez dira emakumeenak. Hortaz, tailerrak berariaz dira emakumeentzat. Nolanahi ere, beti dute teoria feministan non trebatu, euren ideiak, subjektibitateak, bizi-ohiturak eta munduan duten lekua landu ahal izateko. Egia esan, nik emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako prestakuntza eta hitzaldi asko egiten ditut. Izan ere, nire ustez, elkarrekin topo egiteko guneak badaude, eta, halaber, lotuta dauden, baina genero-erakuntzak eta -sozializazioak bereizi ditzuten, errealitateetatik lan egiteko beste gune batzuk.

Hurbiletik

Fisioterapeuta izateaz gainera, Maitena Monroy (Bilbo, 1972) aditua da indarkeria matxistan, eta aitzindaria, autodefentsa feminista irakasten. Erreferentea da Espainiako estatuan zein Hego Amerikan, eta hiru hamarkada baino gehiago daramatza tailerrak eta

hitzaldiak egiten. Monroyk *Autodefentsa feminista. Más allá de aprender a decir no* liburuan jaso du bere lana, non teoria feministaz gainera, besteak beste, ahalduntze feministaren ariketak eta baliabideak batu baitu, ikuspegi emozional eta kognitibo batetik.

Tailerra Zamudion

Urriak 26 · 10:00-14:00
Kultur Etxeko gimnasioan
Izena ematea:
633 196 014
zapatariorriakzamudio@gmail.com

squattrainingcenter.es · 686 917 409"/>

GAZTEA ETA

“Magia da argazkilaritza analogikoa”

IZARO ROJO BATIZ
Argazkilaria

Hogeita zortzi urteko lezamarrak umetik erakutsi du arterako zaletasuna. Baita trebetasuna ere. Marrazkigilea izateaz gainera, argazkilaritzan trebatu da eta espero du lan-ibilbidea arte-munduan egin ahal izatea. Badaki ez dela bide erraza izango, baina ahaleginak egingo ditu.



T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

Etorri artistikoa txikitatik duzu, ezta?

Bai. Asko gustatzen zait marraztea, txikitatik. Pintura-eskolak jaso nituen eskolan nengoela, eta gero, institutuan, poz-pez joaten nintzen plastika-eskolara. Horregatik erabaki nuen batxilergo artistikoa egitea. Ondoren, Arte Ederrak ikasten hasi nintzen, baina bi ikasturte baino ez nituen egin, motibazioa galdu nuen eta.

Zergatik?

Alde batetik, irakasleak ez zirelako askotan ikasgelatik agertzen, eta beste alde batetik, eskola-saioak ez zirelako nik espero nuena izan. Argazkilaritza ere txikitatik gustatzen zait: etxean beti izan dugu argazki-kamara bat, eta handik eta hemendik ibiltzen nintzen argazkiak egiten, lagunei-edo. Hortaz, erabakita nuen

Arte Ederrak amaitu ondoren argazkilaritza ikastea; azkenean, ez nuen itxaron unibertsitatea amaitu arte eta argazkilaritza ikasteko momentua aurreratu nuen.

“Erretratuak egitea gustatzen zait eta batez ere ingurukoei egiten dizkiet argazkiak”

Pozik hartutako erabakiarekin?

Oso. Gainera, argazkilaritza analogikoarekiko interesa piztu zitzaidan: laborategira sartzea, ilunpetan, paper zuri batetik argazki bat ateratzea... Hori magia da! Argazkilaritza analogikoan buru-be-

larri nabil gaur egun. Etxean ez dut laborategirik, eta argazkiak laborategi batera bidaltzen ditut errebelatzera. Hau dela, bestea dela, apur bat garestia da, baina gero zure lana ikusteak «subidoia» ematen du.

Zerk erakartzen zaitu?

Bada, argazkilaritza digitalean ez bezala, argazkilaritza analogikoan dena izan behar duzu oso argi eta oso ondo pentsatuta, argazkia egin baino lehen: argia bera, denbora... Ezin da editatu. Horrek guztiak erakartzen nau.

Mundu digitalean analogikora itzuli zara.

Bueno, ez pentsa; erabili eta botatzeko argazki-kamerak, esaterako, modan daude berriro. Hori argazkilaritza analogikoa egiteko modua da.



Rojoren zenbait lan.

Istorioak

Lezamako jaietako kartelak Izarok marraztu ditu aurten. “Eskuz marraztu ditut. Bestalde, orain dela bi urte oihalezko poltsak margotzen hasi nintzen, eta nahiko arrakasta izan zutenez, animatu nintzen azoketara joatera”. Adierazi digu tatuatzailea izateko ikasketak egitea pentsatzen dabilela. “Azken batean, marrazteko beste modu bat da. Gainera, gustatzen zait tatuaiak nire gorputzean ikustea”. Guztira sei tatuai ditu, eta bakoitzak istorio bat kontatzen du. “Frida Kahloren erretratua, esaterako, egin zidaten lehena da. Unibertsitatean hainbat margolari ikusi genituen, eta bera izan zen nigan interes handiena piztu zuena, emakume indartsua zelako eta nabarmendu zelako. Eguzki-loreak eta erletxo bat ere baditut: ahizpak eta biok tatuai berbera aukeratu genuen, zerbait komuna izateko”. Lezamarraren ustez, tatuatzaile moduan lan-aukera gehiago izan ditzake, argazkilari moduan baino. “Egia da tatuatzaile asko dardela, baina lan asko ere bai. Nire artea zabaltzeko beste modu bat izan daiteke, argi eta garbi dudalako lan-ibilbidea arte-mundutik egin nahi dudala”.

Zuk ere eramaten duzu argazki-kamera egun osoan aldean?

Nik beti eramaten dut argazki-kamera digital txiki bat aldean, ezin baita jakin argazki polit bat egiteko aukera noiz edo non etorriko den. Kamera txiki horretaz gainera, baditut reflex analogiko bat eta beste reflex digital bat, baina ez nabil egunero leku batetik bestera argazkiak egiten. Asteburua pasatzera edo oporretara joaten naizenean, bai; bestela, ez. Jaietan ere argazkiak egin ohi ditut, momentuak gogoratzeko.

“Iluntasunak asko erakartzen nau: argazkiek arreta handiagoa ematen dute eta adierazgarriagoak dira”

Nolako argazkiak egiten dituzu?

Erretratuak egitea gustatzen zait eta batez ere ingurukoei egiten dizkiet argazkiak. Momentu bereziak jasotzea ere gustatzen zait, eta betiko gorde. Hori da,

hain zuzen, argazkilaritza analogikotik gustatzen zaidan beste kontu bat; hau da, argazkiak paperean edo pelikulan gorde ahal direla. Digitalean kasuan, aitzitik, handia da argazkiak galtzeko aukera.

Nola definituko zenuke zure estiloa?

Nire argazkiak ilunak dira. Gehienbat zuri-beltza erabiltzen dut, baina kolorea erabiltzen dudanean ere banaiz apur bat «rustikoa»: marroiak gustatzen zaizkit, beltzak, grisak, kolore ilunak... Nire adierazteko modua da. Iluntasunak asko erakartzen nau. Horrela, nire ustez, argazkiek arreta handiagoa ematen dute eta adierazgarriagoak dira.

Lanik egin duzu argazkilari moduan ikasketak amaitu zenuenetik hona?

Lan pare bat egin dut nire kabuz, baina ikusten nabil zaila dela mundu honetan lekua izatea eta jendeak zu ezagutzea. Gainera, oso argazki-kamera onak daude gaur egun, eta halako bat erosita batetik baino gehiagok uste du argazkiak egiten dakiela... Argazkilaritzan aritu nahiko nuke nik, laborategi txiki bat atondu, eta esperimentatu. Instagramen ipintzen ditut nire lanak, eta badirudi jendearek gustatzen zaizkiola; hala ere, ez da erraza zu kontratazea... Bueno, saiatuko naiz eta ikusiko da!

Ae-afaindegia
M^a Antonia Llodio TXPI
Txorienko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TABERNA GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gaztedi.taberna@gmail.com

PATXI KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Bendejo poligona - Buztze 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 587 | info@patxi.coop | www.patxi.coop



Valpuestako kolegiata



Pinedoko kobak



Santa Olallako nekropolia

MENDITIK PATXADAZ

Arabako ibilbide historikotik (eta III)

Arabako ibilbide historikotik egindako ibilbidearen azken atala da hau, Villanueva de Valdegobian hasi eta Bovedan amaituko duguna. Hamazortzi kilometro ingurukoa da, baina betiko legez, bakoitzak egokitu ahal du bere neurrira; guk horrela egin genuen. Horretarako, errepide ondotik joateak asko laguntzen du. Oraingoan ere paraje politetik joango da, eta bidea, gainera, historiaz beteta egongo da. Badago zer ikusi eta patxadaz non gelditu.

Ibilbidea Villanueva de Valdegobian hasi dugu, GR1eko marka zuri-gorri jarraituta. Herriko azken etxeetako fatxadetan harrizko irudi politak topatu ditugu. Laster ezkerretara egin dugu eta mendian sartu gara. Pista ero-soetatik joan gara. Une batean Burgosen sartu gara, eta aurrean, beheko aldean, Valpuesta herria ikusi dugu. Biztanle gutxi batzuk ditu orain, baina garai batean garrantzi handikoa izan zen. Bere kolegiata gotzaindegia izan zen IX.-XI. mendeetan, eta batzuen iritzi, gaztelaniazko lehen hitzak bertako kartularioetan idatzi ziren. Herrira heldu, eta lehenengo eta behin kolegiata ederrarekin egin dugu topo. Bisitatzea merezi du, besteak beste, XVI. mendeko erretaula eta beirate famatuak ikusteko. Ondoko jauregi batean, “Vive bien que has de morir” le-

loa aurkitu dugu armarran idatzita.

Aurrera jarraitu, eta menditik gora egin dugu: ibilbidearen aldaparik gogorrena da hau. Berrito Araban gaude. Pinedo herria pasatuta, marra zuri-gorriak utzi ditugu eta ezkerretara doan bidea hartu dugu, inguruko haitzulo rupestre ikusgarrietara hurbiltzeko. Behetik, goitik eta barrutik arakatzea merezi du. Hemen gaudela, atzera egin dezakegu, berrito bideraino, edo larreen bazterretik joan gaitezke, beherantz. Guk azken hori aukeratu dugu, laburragoa delako. GReko kilometroren bat egin dugu berrito, eta errepidera heltzear geundela, eskuinteko bidezidorretik joan gara, beste haitzulo batzuk bisitatzeko: Corrokoak, oraingo honetan. Horiek ere ezin dira galdu!

Errepidera helduta, GRak hura gurutatu, eta menditik gora egiten du basotik,

gero jaisteko. Hori egin beharrean, errepidetik egin dugu zati labur bat eta inguruan dagoen Santa Olallako nekropolia bisitatu dugu. Orain bai: errepidea gurutzatu dugu, markak aurkitu, eta Tobillaseraino heldu gara. Herri txiki horretan ere badago zer ikusi; adibidez, eliza erromaniko ederra eta antzinako batzarlekua. Bovedara heltzea besterik ez zaigu falta, non bi iturri-aska garbitegi eder nabarmentzen diren; biak ondo kontserbatuta daude. Ibilbidetik kanpo, Ribotako menhirra dago Tobillas eta Boveda artean.

Azken atal hau amaitzeko, aipatu nahiko genituzke Arabako lurretatik egin dugun abenturatxo honetako partaideak. Artikuluen egileez gainera, hauek dira: Jabi Baez, Gabriel Etxebarria, Juantxu Bilbao, Jose Enrique Astobieta, Andoni Lekunberri eta Iñaki Beitia.



Tobillaseko erromanikoa



Bovedako iturri-aska-garbitegiak




Ribotako menhirra

T **📷** IÑAKI OLABARRIETA - JOSE ANGEL MENTXAKA

Ibilbidea

Distantzia: 19 km

Desnibel positiboa: 606 m



Eskuratu hemen
ibilbidearen track-a.

IZ
I.L.E. APAINDEGIA
946036943
Txantxangeri n.2
ZAMUDIO
iz.ileapaindegia@gmail.com

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZEROA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA MURCIA • 968 71 88 76

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

Hondakin gehiago batzeko eta kaleak garbiago egoteko kontratua

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak hura osatzen duten sei udalerrietan hondakinak biltzeko eta bideak garbitzeko kontratua sinatu du Txorierri RSU 2023 aldi baterako enpresa-elkartearekin. 2024ko urriaren 1ean hasiko da kontratua eta 8 urteko iraupena izango du.

Kaleak garbitzea eta hondakinak biltzea funtsezko zerbitzuak dira, mankomunatutako aurrekontuetako gasturik handiena dakartenak. Zerbitzu horiek beharrezkoak dira ingurune garbi, jasangarri eta atseginean bizi gaitzen.

Kontratu berri honek hainbat hobekuntza ekarriko ditu egungoarekin alderatuta, eta horietako batzuk ez dira berehala ezarriko, denborarekin ikusiko baitira:

Kontratu honetan bilduko diren hondakinak: errefusa (azal griseko edukiontzi berdea), paper-kartoa (azal urdineko edukiontzi berdea), organikoa (edukiontzi marroia), pilak, olioia eta tamaina handikoak.

Hondakin horiek tratamendu-instalazio publikoetara, erdipublikoetara edo gure udalerrietatik gertuen daudenetara eramango dira.

500 edukiontzi berri baino gehiago eta ibilgailu eta makineria jasangarriagoak

Edukiontziak berritzea

500 edukiontzi baino gehiago jarriko direnez, gure kaleetatik kendu ahal izango dira hondatuta dauden gainerako hondakineterako edo errefuserako edukiontziak eta kartoi-papera uztekoak.

Olioien eta pilen edukiontzien ordez beste batzuk jarriko dira, eta horiei Mankomunitateak jarriko dituen 100 edukiontzi marroi baino gehiago gehituko zaizkie. Edukiontzi marroi horiek egungoak baino handiagoak izango dira eta txartel bidez irekiko dira.

Gainerako-zatikiak (errefusa), paper-kartoa, organikoa eta erabilitako olioia uzteko edukiontzien tag bat izango dute: fitxa biribil eta beltz bat, zenbaki batekin, edukiontzien gorputzaren kanpoaldean. Edukiontzia identifikatzeko balio du. Norbaitek abisatu nahi badu edukiontzi jakin bat beteta, hautsita edo lekuz aldatuta dagoela, komeni da identifikazio-zenbaki hori ematea Mankomunitateari.

Txorierritarrei lagundu nahi diegu sortzen dituzten hondakinak jatorrian bereizten, dagozkien edukiontzi selektiboetan utz ditzaten eta berariazko tratamendua eman dakien.

Ibilgailuak eta makinak berritzea

Ibilgailu-flotaren eta makineriaren zati bat berritzen ari dela ikusiko dugu, ekipo berriek atmosferara CO2 gutxiago isuriko dute, baita beste konposatu batzuk ere. Erregai aurrezteko sistemak, ura aurrezteko gailuak (uraren birzirkulazioa, berrerrabil dadin) eta intsonorizazioa izango dituzte.

Euskara ikastaroetan matrikulatutako ikasleentzako dirulaguntzak (2023-2024 ikasturtea)

Eskaerak aurkezteko epea eta tokia:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko epea 2024ko urriaren 31ra artekoa izango da. Eskaerak aurkezteko bi aukera egongo dira:

1. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen webgunean deskargatu ahal izango dira (www.txorierri.eus) edo herri hauetako udaletxeetan jaso: Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio. Txorierriko Mankomunitateko

Euskara Zerbitzuan edo udaletxe horietan aurkeztuko dira.

2. Eskaerak telematikoki tramitatu ahal izango dira. Horretarako, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen webgunean sartu beharra dago (www.txorierri.eus), "tramiteak" atalean. Tramiteen barruan "Dirulaguntzen, beken, sarien eta laguntzen eskaera" atalean sartu. Eskaera egin ahal izateko ziurtagiri digital hauetako bat izan behar da indarrean: Bak, BakQ edo Izenpe txartel birtuala.





“Txorierriko gazteak: musikazaleak, kirolzaleak eta berdintasunaren aldekoak”

Eskuhartze komunitarioko zerbitzuko GazteEkin programak uda garaia aprobetxatu du Txorierriko gazteen aisialdia eta gustuak zeintzuk diren ezagutzeko. Horretarako, ekainean eta uztailan, galdetegi bat pasatu zaie, aisialdian egiten diren ekintzez eta lekuetz galdetuz.

Guztira, 81 galdetegi bete dituzte:

Adina	
16-17 urte	25 (% 30,9)
18-20 urte	22 (% 27,1)
21-25 urte	23 (% 28,4)
26-30 urte	11 (% 13,6)

Udalerrria	
Derio	28 (% 34,6)
Larrabetzu	1 (% 1,2)
Lezama	11 (% 13,6)
Loiu	4 (% 4,9)
Sondika	13 (% 16,1)
Zamudio	24 (% 29,6)

Genero aldetik, nahiko parekoa izan da parte-hartzea: 37 emakumezko, 41 gizonzko, ez-bitar bat eta erantzun nahi izan ez duten bi pertsona.

Galdetegiaren emaitzatik deigarria da adin tarte guztietan %79k kirola gustuko dutela. Eta horietatik azpimarratu

dezakegu 21-25 urtekoen artean %82,6k gimnasia doazela.

Euskararen erabilerari dagokionez oso deigarria egin zaigu gehiengo batek (%62,9) euskaraz bete duela galdetegi, eta %38,1ek baino ez dutela erantzun gaztelaniaz. Gure ustez gazteak ohituta daude kontu akademikoak eta formalak euskaraz erantzutera, baina, gero, galdetegiak erakusten dutenez, euren arteko harremanetan gehienek (%71,6k) gaztelaniaz hitz egiten dute; %27,1ek hizkuntza bietan egiten duela erantzun du, eta pertsona bakar batek adierazi du euskara hutsean aritzen dela.

Parte-hartzea dela-eta oso albiste ona azaleratzen digute galdetegiak: erantzun duten gazteen artean %79k herriko ekintzetan parte hartzen dute. Egia da, herri askotan momentu honetan gazteekin prozesu parte-hartzaile asko daudela irekita, beraz, oso onuragarria izan daiteke gazteen begirada ere edukitzea gure herrien garapena izateko. Era berean, azpimarratzekoa da 21-25 urtekoen %94,1 tabernan elkartzeko direla. Hauek dira adin tarte horretako parte-hartzaileen gustuko arloak: musika (%94,1), berdintasunaren aldeko ekintzak (%85,7), tailerrak (%61,1) eta zinema (%66,6). Hori dela-eta, beharbada, euren interesak entzunda, posible izan daiteke ekintza interesgarriak proposatzea.



Euskara, edonorako tresna



Etxeko suetean darabilgun aitzoak, ezinbestean, zorrotza izan behar du. Amosten edo kamusten bada, bazterrean utziko dugu. Gauza bera gertatzen da hizkuntzarekin. Bere lana behar bezala egin ezean, ez dugu erabiliko. Kitto.

Ume eta gazteei, esaterako, euskarak jarduna mugatzen badie, edo ez badie baliabide nahikorik eskaintzen buru-bi-

hotzen dituztenak adierazteko... ez dute erabiliko.

Edonorako tresna behar dute, ez bakarrik eskolarako edo etxekoekin hitz egiteko. Erreminta funtzionala behar dute, lagunekin olgatzeko, elkarri adarra jotzeko, berba-jokoak asmatzeko, eta abarrerako.

Baina zelan jasoko dute lagunarteko hizkera informala? Hor dituzte inguruan, lagunak, aitita-amamak eta maisu-maistrak. Zer entzun, ha erabiliko dute. Apurka-apurka Txorierriko eta Bizkaiko hainbat berba ikasiko dituzte: harroputz edo handiputzari *eretxia* esango diote, inozo

edo kokoloari *babalastoa* edo *papaoa*, zuzenari *arteza*, trauskilari edo edozelan jantzita doanari *balastragoa*, bihurriari edo beti barreka dabilenari *gangarra*, gutxi eta txarto jaten duenari *jakana* edo *mizkina*, edozertan muturra sartzen dabilenari *zazpisuete* edo *nonzebarria*, ganorazkoari *jasekoa*, zirikatzaileari edo ipurtarinari *zirina*...

Adimen artifiziala erabilgarria izan daiteke euskara jasoa lantzeko, hor ditugu adibidez ChatGPT eta itzultzaile neuronalak; baina, ez dezagun ahaztu, erregistro informala lantzeko modua, oraindik ere analogikoa dela.



T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

IRAIDE GORROTXATEGI ETA AITOR TOLOSA Muslariak

“Txapela bera da irabaztearen poztasunik handiena”

Urriaren 19tik 27ra bitartean, Euskal Gizataldeen Munduko Txapelketa izango da Cuscon, Perun, eta Iraide Gorrotxategi zamudioztarra eta Aitor Tolosa santurtziarra hara joango dira titulu berrestera. Izan ere, César Rasines bikotekidea zuela, Tolosak munduko txapelketa irabazi zuen iaz, eta Gorrotxategi garaile izan zen txapelketa amaituta egiten den lehiaketan; hori Ismael Torralbarekin irabazi zuen.

Iaz, Txilen bizi izan genuen esperientzia berbera bizi izatea espero dugu, itzela izan zelako. Aurtengo txapelketan 12 herrialdeko muslariok hartuko dugu parte: herrialde bakoitzak bikote bat eramaten du, aurreko urteko herrialde irabazleak eta antolatzaileak izan ezik, bi bikote eramaten dituzte eta. Parte-hartzaileak,

laguntzaileak, delegatuak... kontuan hartzen baditugu, lagun asko batzen gara munduko txapelketetan”, esan digute. Bikoteak azpimarratu du Euskal Herriatik beste herrialde batzuetara migratu zirenek haiekin batera mus-kultura eramán izanaren garrantzia. “Zaletasun handia dago batez ere Hego Amerikan: Argentinan, Perun, Txilen, Mexikon...

Eta gero, Estatu Batuetan, Frantzia eta Australian. Baina ez bakarrik mus-jokoa, jakina; herrialde horietan euskal etxeak sortu zituzten, eta bertoko kulturari eta ekitaldiei eutsi diete: Olentzero, Korrika...”

Euskal Herriko eta Espainiako txapelketen aldean, oso bestelakoa da munduko txapelketa. “Lehenengo eta behin,

bikote gutxiagoren kontra lehiatu behar da; Espainiako txapelketa batean, berriz, 300 bikotek baino gehiagok hartu ohi dute parte, adibidea ipintzearen. Era berean, munduko txapelketan bikote guztiek elkarren kontra jokatu behar dute, liga bat izango balitz moduan, eta puntu gehien lortzen duenak irabazten du; bakarrik berdinketa izanez gero jokatzen da finala. Gainera, zortzi erregerekin eta zortzi batekorekin jokatu beharrean, lau erregerekin eta lau batekorekin jokatzen da munduko txapelketan. Araudi horretara moldatu behar duten bakarrak geu gara”. Hala ere, ez da oso lan neketsua. “Horrela jokatzen da Iruñan, Logroñon eta Gipuzkoako herriren batean. Ohitzea kostatzen den? Bueno, beste gabe... Guk modu horretan partidaren bat jokatu dugu elkarrekin aurtan, baina ez Perun ibiliko garen bikotekideekin. Aireportuetan aprobetxatuko dugu entrenatzeko. Dena dela, norbera berehala ohitzen da, eta ez dugu inongo arazorik izango”.

Zamudioztarrak eta santurtziarrak sarritan hartzen dute parte txapelketetan, eta hainbat txapel eta trofeo iraba-

zi dituzte. “Batez ere Aitorrek; etxean mus-museoa du (kar-kar)”. Titulu inportanteren bat aipatzea eskatu diegu, eta apur bat kostatu zaie aukeratzea. Azkenean kontatu digute Tolosa Espainiako txapelduna izan zela 2019an, eta txapeldunordea, 2017an. Gorrotxategik, bestalde, Kurzaalen txapelketa irabazi du, eta Erandioko Batzokikoa iaz. “Joan den

“Munduko txapelketak araudi berezira moldatu behar duten bakarrak geu gara; aireportuetan aprobetxatuko dugu”

urtean ere, Gabonetan, Katxi Morgako jatetxeko txapelketa irabazi genuen. Egia esan, mus arin txapelketa askotan hartzen dugu parte, eta askotan izan gara garaile. Jaietan ere bai. Txapelketa

luzeagoetan... Nolanahi ere, lehentasun apur bat handiagoa ematen diegu Espainiako txapelketara joateko aukera eman diezaguketen txapelketei”. Euren hitzetan, txandak garaituz joatea eta txapelduna izatea mus-jokoaren poztasunik handiena da. “Eta txapela bera. Txapela gustatzen zaigu”.

Txapelaz eta trofeoaz gainera, eskudirutan ere izaten dira sariak, eta irabazten dutena beste lehiaketa batzuetara eta munduko txapelketara joateak ekartzen dituen gastuak ordaintzen laguntzeko erabiltzen dute. “Momentuz ez dugu inongo laguntza ekonomikorik, eta, adibidez, munduko txapelketara joatea oso garestia da: parte-hartzaile bakoitzak 1.500 bat euro ordaintzen ditu, eta laguntzaileen eta delegatuen kasuan, diru gehiago da, den-dena euren poltsikotik ordaindu behar dute eta. Txapelketa Argentinan egingo da datorren urtean, baina ideia da bi urte barru Bilbon egitea. Antolatzaileek buru-belarri ibili beharko dute erakundeen eta babesleen laguntza topatzeko, zeren eta ekintzak oso plangintza zorrotza eskatzen baitu: jende askorentzako hotela topatzea,

Magia goizetik gauera gertatzen da.

Aldatu ohea, aldatu bizitza.



SUIT DELUX

► ZURE BIZITZA HOBETZEKO GURE OHEAK | KOLTXOIAK | BESAUUKIAK ETA SOFAK

Derio / Derioko Seminarioa
48160 Derio (Bizkaia)
T. 944 545 147

Leioa / Iparragirre 80
48940 Leioa (Bizkaia)
T. 944 316 516

suitdelux.es



otorduak non egin, bisitak antolatzea ingurua ezagutu dezaten...”.

ABILEZIA

Kontatu digutenez, oso giro ona dago mus-munduan eta hori da hain zuzen ere erakartzen dituen. “Lagunak egiten dira”. Jokoa bera ere bada erakargarria. “Logikoa den moduan, karta onak badituzu, irabaziko duzu, nahiz eta jokatzeko ez jakin. Baina musa haratago doa, karta txarrak izanda ere irabazi ahal duzulako. Hortaz, abilezia izan behar duzu arerioak engainatzeko, keinuak disimuluz eta ondo egiten jakin behar da... Halaber, ezinbestekoa da arerioak aztertzea eta horren arabera erabakitzea nola jokatu duzun”. Gorrotxategiren iritziz, esandakoak dira musulari on baten ezaugarriak, “eta Aitorrek guztiak ditu”. Bikotekide berberarekin beti edo ia beti jokatzeko ere bermea da.

Adin bat dutenek gogoan izango dituzte auzoetako tabernetako mus-partidak: bazkaldu ostean, etxe ondoko tabernara joan, eta beti zegoen norekin jokatu. “Ohiturak aldatu dituzte, eta

orain mus arin partida handiagoak antolatzen dira leku jakin batzuetan. Ordua ipintzen da, eta izena ematea egin behar da; sariak ere izaten dira. Hala ere, auzoko mus-partidak egiten jarraitzen da leku batzuetan, edadekoen eskutik”.

Musak Euskal Herrian du jatorria, eta, ondorioz, ez da harrizkoa euskal musulariak txapelketetan gailentzea. “Madrildarrak eta asturiarrak ere onak dira musean jokatzeko”. Irabazi edo galtzetik harago, musak balioak ere helarazten ditu, eta haien artean adiskidetasuna eta jarrera egokia izaten jakitea azpimarratu dituzte. “Guztioi gustatzen zaigu irabaztea, baina duintasunez galtzen jakin behar da, eta batzuek ez dakite. Guk, noski, badakigu galtzen”. Amaitzeko, jokaldi perfektuari buruz galdetu diegu, erantzun digute momentu batean bat izan ahal dela, eta beste momentu batean, beste bat. “Aukera gehiago «eskuko politak» ditu. Hiru errege eta bateko bat dituzenez, karta onak dituzu handira eta pareetara, eta jokaldirik onena. Baina, lehen esan moduan, karta txarrekin ere irabazi daiteke”.

“Abilezia izan behar da arerioak engainatzeko, keinuak disimuluz eta ondo egin...; horiek dira musulari onaren ezaugarriak”



Aitarengandik

Musak elkartu ditu Iraide Gorrotxategi eta Aitor Tolosa. Biek txikitari izan zuten karta-joko honekin lehen harremana, eta euren zaletasuna handituz joan zen urterik urte. Bien gurasoek zerikusia izan zuten horretan. “Aita jokatzeko ikustera joaten nintzen tabernara, eta horrela ikasi nuen musean jokatzeko. Izan ere, partidak ikusiz ikastea errazago da norbaitek zuri irakastea baino. Hamaika edo hamabi urte nituela banekien jokatzeko, baina ez zidaten inon jokatzeko uzten, adingabea nintzelako”, gogoratu du Tolosak.

“Nik ere aitarengandik ikasi nuen, berarekin denbora asko ematen nuen eta”, azaldu du Gorrotxategik. “Gero, jaietan antolatzen ziren partidetan jokatzeko hasi nintzen, eta zirkuituan orain dela zortzi urte-edo sartu nintzen. Ohiko partidez eta txapelketez gainera, olinpiadetan ere hartzen dugu parte. Olinpiadetara bost bikoteko taldean joaten da: Aitor Lau Bide tabernako taldean dago, eta ni Uri taldearen kapitaina naiz. Olinpiadak ere oso inportanteak dira, eta lehiaketan jarraitzeko, gutxienez hiru partida –guztira

bost dira– irabazi behar dizkiozu beste herrialde bateko taldeari. Azken olinpiadetan 630 bat lagun batu ginen Segovian. Oso dibertigarria da eta oso giro ona dago parte-hartzaileen artean”.

Bizkaian, txapelketetan parte hartzen duten 12 emakume musulari inguru daude, eta 150 gizon musulari. “Minoria gaudela egia den arren, esan beharra dago gero eta emakume gehiago gairela. Ondo tratatzen gaituzte eta gustura gaudero orokorrean. Lagun-giroa dago eta oso ondo pasatzen dugu”.

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



Francis Diez (Wikimedia / Donostia Kultura)



Asier Gozategi (Wikimedia / Kultura Plazara)



Kris Solano (Amaktaldea.eus)

ZAMUDION KULTURA BERE BIDEAN

Musika-ikuskizun handia antolatu du Lagatzuk, elkartearen 25. urteurrena ospatzeko

Hogeita bost urte bete ditu Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak, eta urteurrena ospatzeko, ekintza berezi-berezia antolatu dute urriaren 19rako: *Kulturak Bere Bidean*. Herriko kiroldegian atonduko den agertokira euskal musikaririk garrantzitsuenetako batzuk igoko dira, eta euren abestirik ezagunenak joko dituzte, Lagatzuko kideekin eta ikusleekin batera festa handia egiteko.

Kultura Bere Bidean egitasmoak hurrengo hauek batuko ditu Zamudion: Iñigo Etxezarreta (ETS), Francis Diez (Doctor Deseo), Iñaki Ortiz de Villalba (Betagarri), Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea (Gozategi), Gorka Sarriegi eta Urbil Artola (Sorotan Bele), Roberto Moso (Zarama), Amaia Oreja, Kris Solano eta Maixa Lizarribar (Amak), Eneritz Gorritxategi eta Edurtzeta Ania (Haize Arrosa), Juan-txu Urkiaga (Jokaldi), Eider Saez, Mikel Markez, Etxahun Lekue eta Kukai dantzakonpainia. “Bakoitzak bere edo bere taldearen kantarik ezagunena joko du, edo abesti pare bat. Gainera, baliteke musikari batzuek elkarrekin ere abestea”, azaldu digute Lagatzuko kideek. “Musikari bakoitza bere izenean etorriko da, eta ikuskizuna egin ahal izateko, sei musikaririk osatutako taldearen laguntza izango dute; talde hori ikuskizuna osoan zehar arituko da. Beste alde batetik, aipatu beharra dago Kukaik zenbait saio egingo dituela, eta oraingo honetan Etxahun Lekue ez dela bertsotan ibiliko, abesten baizik”.

Esan moduan, *Kultura Bere Bidean* ikuskizuna urriaren 19an izango da Zamudioko kiroldegian, iluntzeko zortzietatik aurrera. Sarrerak jadanik ipini dira salgai, 18 euroan, www.zamudio.eus webguneko “Bonoak eta jarduerak” atalean, eta hurrengo leku hauetan: Zamudioko liburu-dendan, Foteri tabernan (Larrabetzu) eta Txorierriko Baserri Antzokian eta Hiru tabernan (Derio). Guztira 900 sarrera ipini dira salgai, baina antolatzaileek adierazi dutenez, gehiago atera litezke, eskaerarik egonez gero eta horretarako aukera balego.

Ikuskizuna urriaren 19an izango da herriko kiroldegian, 20:00etan; sarrerak 18 euroan ipini dira salgai

Lagatzukoek jakinarazi dutenez, egitasmoa hausnarketa-prozesu sakon baten emaitza da. “Euskara elkarteak urtero antolatzen du Lagatzu Eguna eta oso arrakastatsua izaten da. Hala ere, oraingo honetan, urteurrena dela eta, zerbait berezia egin nahi genuen Lagatzu Egunetik kanpo. Zenbait ideia izan ditugu buruan, baina gauza bat dela eta bestea dela, ezin izan ditugu horiek aurrera eraman. Orduan, Baga Bigara jo genuen, eta *Ura Bere Bidean* egitasmoaren antzeko ikuskizuna egiteko proposamena egin ziguten; *Kultura Bere Bidean*, gure kasuan. Ideia gustatu zitzaigun, eta Zamudioko Udaleria ere jo genuen laguntza eske, nahiko ekitaldi «potentea» delako: euren babesa eman digute eta aurrera egitea erabaki dugu”. Ekintza arrakastatsua izatea espero dute Lagatzukoek. “Nahiko ekitaldi mamitsuua da eta uste dugu horrek sarrerren salmenta erraztuko duela. Beste helburu bat da herriari halako ekitaldi polita eta handia eskaintzea, eta haren bidez bai Zamudio, bai Lagatzu beste leku batzuetan ezagutzera ematea”.

Bestalde, eta Lagatzuk ere antolatuta, aurreko egunean, urriak 18, Porrotx eta Marimotots pailazoez *Ez gara jaitsiko* ikuskizuna aurkeztuko dute, 18:00etan, Zamudioko kiroldegian. “Aspalditik eta urtero antolatzen dugun ekintza da, eta hori ere oso arrakastatsua izaten da.

“Helburua da herriari ekitaldi polita eta handia eskaintzea, eta Zamudio eta Lagatzu beste leku batzuetan ezagutaraztea”

Sarrerak sei euroan ipiniko dira salgai elkartearen bazkideentzat, Lagatzuko lokalean, irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an, 18:00etatik 19:00etara. Bazkide bakoitzak bi sarrera erosteko aukera izango du. Gainerakoentzako sarrerak zortzi euroan salduko dira ohiko lekue-tan eta udal-webgunearen bidez”.

BIZIRIK ETA BIZIPOZAZ

Hogeita bost urtean aldaketa gutxi izan dira Lagatzu euskara elkartearen baitan, eta bere kideek aitortu dute alde horretatik nahiko «zahartuta» daudela. “Baina elkartearen bizitzari buruz hitz egiten badugu, argi dugu oraindik herriaren eta herriko elkartearen laguntza eta babesa dugula. Adibidez, ezinezkoa izango litzateke Lagatzu Eguna haien laguntza barik antolatzea, eta urtero erantzuten diote gure deiri. Beraz, talde moduan bizirik eta bizipozaz gaudela esango genuke, indartsu”. Ordezkoak topatzeko, berriz, zailtasunak dituztela adierazi dute. “Elkarte guztietan edo gehienetan gertatzen den gauza dela ikusten dugu. Izan ere, jendea prest dago egitasmoetan laguntzeko, baina asteroko dinamika batean inplikatzeko beste gauza bat da; ez da erraza horretarako prest dagoen jendea topatzea. Gainera, guk edade bat dugu eta ez da erraza gazteak erakartzea, gurekin lan egin dezaten”. Horregatik kezkatzen ditu euskara elkartearen etorkizunak. Ez da erraza asmatzea, baina bitartean euskararen alde jarraituko dute lanean.

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDAL
EVSKALTEGIA



hARTu

hütza

Da el primer paso,
aprende euskera.

Matrikula epea zabalik
2024-2025

Trebatu Txorierrin

Txorierrin bertan hainbat aukera dituzu zure burua trebatzeko eta zaletasunez gozateko



Estudios 10 ikastegia

944 545 013
hamar.ikastegia@gmail.com

Hogeita bost urte baino gehiagoko eskarmentua dute irakaskuntzan. Eskola pertsonalizatuak ematen dituzte, baita talde txikietan ere. Halaber, arreta-defizita duten umeentzako eskola-saioak eskaintzen dituzte.

Hainbat hizkuntza irakasten dituzte ikastegian, hala nola euskara, gaztelania eta ingelesa. Gainera, etxeko lanak egiten laguntzen dute, sarrera-probak prestatzen (unibertsitatera, lanbide-moduluetara...), oposizioak prestatzen eta oinarrizko tituluak ateratzen (nagusiak). Matrikula doakoa da eta urte osoan dago eskolak jasotzeko aukera.

Oakland akademia

946 522 857
josu@oaklandzamudio.com

Oakland Zamudioko akademiak ingeles-akademiak hainbat mailatako eskolak eskaintzen ditu, baita ikastaro trinkoak eta enpresetarako ikastaro bereziak ere.

Oakland akademian adituak dira ikasleak Cambridge, First, Advanced, Pet eta Ket tituluak lortzeko prestatzen: % 99k gainditzten dute azterketa.

Akademian, ikasketa-prozesu individualizatuen aldeko apustua egiten dute, ikasle bakoitzaren erritmoa eta garapen-prozesua kontuan hartuta. Izena ematea doakoa da eta behin hura emanda hasi daiteke eskola-saioetan parte hartzen.

Larrabetzu eta Derio Musika Eskola

638 707 201
larrabetzume@gmail.com

Txorierrin 50 urteko eskarmentua dutela, hainbat musika-tresna irakasten dituzte: saxofoia, panderoa, eskusoinua, pianoa, txilibista, bibolina, gitarra elektrikoa eta klasikoa eta bateria, batzuk aipatzearren.

Eskolak bakarka zein taldeka ematen dituzte. Gainera, hizkuntza musikala eta armonia ematen dute lau urtetik gorako lagunentzat. Musika-hezkuntza arautua zein ez arautua eskaintzen dute.

Izar Argia abesbatza akademiaren baitan sortua da eta 30 urte baino gehiago daramatza euskal kantak Txorierriko umeekin abesten eta euskal musika-kultura zabaltzen.



Lainomendi dantza taldea

lainomendi@gmail.com

1990. urtetik lantzen dituzte euskal dantzak eta euskal kultura Derion. Herriko jai guztietan eta Gabonetan ere dantza egiten dute, ikasitako dantzak jendaurrean erakusteko. Gainera, Bizkaiko Dantzari Egunean parte hartzen dute urtero, eta eskualdeko taldeek antolatzen dituzten agerraldietara ere joaten dira. Era berean, Derioko kultura-taldeen ekintzetan hartzen dute parte.

Lau urtetik gorako umeei, gazteei eta nagusiei tresna ezin hobea eskaintzen diete, euskal giroan eta talde-lanean, euren garapen fisikorako, pertsonalerako eta soziale-rako. Dantza-saioak barikuetan egiten dituzte Kultur Birikan: lau urtetik gorakoak, 17:30ean; 11 urtetik gorakoak, 18:30ean; eta 13 urtetik gorakoak, 19:30ean.



Satori fitness

690 044 748
satorifitnes@gmail.com

Ongizatea eta osasunaren zaintza osoa dute ardaztat. Adituak dira pilatesean, entrenamendu funtzionalean eta haurdunaldiari eta erditu ondorengoari lotutako ariketetan.

Talde-saioak egiten dituzte, baita saio pertsonalizatuak ere. Zerbitzu osagarriak eskaintzen dituzte, hala nola nutrizioa eta esku-terapiak.



Xaker kirol zerbitzuak

652 710 532
xaker@xakerkirola.eus

Kirol-instalazioak kudeatzeaz ardura-tzen dira, garbitzeaz eta mantentzeaz. Kirol-erakustaldiak antolatzen dituzte.

Goi-mailako pilota-taldeak entrena-tzeaz gainera, kirol-elkarteen kudeaketa hartzen dute euren gain: klubak, federazioak, eskolaz kanpoko jarduerak, uda-lekuak...

Larrabetzun, Lezaman eta Zamudion, era guztietako kirol-ikastaroak eskaintzen dituzte, hala nola yoga, pilates, total body fitness, mantentze-gimnasia, txirrin-bike...



BERBAGAZTE

Euskarazko planik onenak gazteentzat

Urteak dira Berbalagun egitasmoa martxan ipini zela: helburua da euskara ondo dakitenak eta euskara ikasten dabiltzanak edota ahozkoa hobetu nahi dutenak astean behin elkartzea, gustuko duten ekintza egiteko; gainera, hilabetean bitan aisialdi-jarduerak antolatzen dituzte. Iaz, pauso bat haratago egin, eta Berbagazte egitasmoa sortu zen, Txorierriko gazteek aisialdian ere euskaraz gozatu dezaten. Arrakastatsua izan zela ikusita, aurten ere ipiniko da martxan.

“**B**erbalagunen batz besteko adina 40 urtekoa da, eta, hortaz, oso zaila da gazteak taldeetara erakartzea, ez direlako identifikatuta sentitzen”, azaldu du Ane López arduradunak. “Egitasmoak aire freskoa behar zuela ikusi genuen, baita gazteek parte hartzeko beharra ere. Behar horretatik Berbagazte programa sortu zen duela urtebete. Berbalagun egitasmoan moduan, xedea da aisialdian euskaraz egin dezatela, eta horretarako, euren gustuko ekintzak antolatzen dira. Beste aldetik, azpimarratu beharra dago Txorierriko Berbagazte aitzindaria dela, ez baita beste inon egiten”.

Bi talde bereizi dituzte Berbagazte egitasmoaren baitan: alde batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) bigarren eta hirugarren mailetakoko ikasleak,

eta bestetik, 16 urtetik 30 urtera bitarteko gazteak. “Bi talde egin ditugu, adinaren arabera interes ezberdinak dituztelako. Nolanahi ere, argi utzi behar da Berbagazte eremu akademikotik kanpo egiten den egitasmoa dela, testuinguru guztiz informal batean. Argi dugu ekintzak euren gustukoak izan behar direla, eta, horregatik, oso garrantzitsutzat jotzen dugu haiei galdetzea zer egin nahi duten: ideia bideragarria bada, aurrera eramaten da”. Iaz, esaterako, surf-ikastaroak eta sukaldaritza-tailerrak antolatu zituzten. “Aurtengo ikasturterako, beste proposamen batzuk ere badaude: skate, crossfit...”. Guztiak doako ekintzak dira.

Berbagazte egitasmoaren arduradunak institutuarekin, gazteguneeekin eta ludotekeekin lankidetzan dabilza, ekintzak gazteei hurbiltzeko. “Kartelak ipintzen

ditugu, eta WhatsApppe eta gizarte-sareen bidez ere zabaltzen ditugu. Bi talde ditugunez, bi whatsapp-talde ere baditugu, bakoitzaren partaideekin informazioa trukatzeko eta zer egin nahi duten galdetzeko. Berbagazte programan parte hartzeko izena ematea urte osoan dago zabalik, eta gazteek nahi beste ikastarotan eman dezakete izena, ikastaro independenteak dira eta”. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, berbalagun.txorierrri@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke, edo 747 447 579 telefono-zenbakira deitu edo whatsapp bidali.

“DBHko taldean 20 bat gazte daude, eta beste taldean, 30 gazte inguru. Beraz, oso balorazio positiboa egiten dugu egitasmoari buruz, izan ere, badoa arrakasta hartuz, eta gazteak ere badoaz Txorierrin Berbagazte egitasmoa dagoela enteratuz”.

Ezagutu zure herrian dauden taldeak edo egin zure proposamena!

mendian

gurasoekin

Eta euskaraz egiten badugu?

jolasean

josten



Eman izena!

Izen ematea: Urte osoan zehar

747 447 579 • berbalagun.txorierr@gmail.com

 mintzalaguna.eus

Antolatzaileak

Babesleak

Laguntzaileak





T ITXASO MARINA LAURENTZI HORMAETXE

LEZAMAKO MUGETATIK Indartsu urterik urte

Aurreko egunean botatako euri-zaparradaren ondorioengatik kezkatuta ibili ziren antolatzaileak, baina Lezamako Mugetatik mendi-lasterketa eta -ibilaldia erabat arrakastatsuak izan dira beste behin ere. Proba irailaren 1ean egin zen, eta orotara 600 lagun inguru ibili ziren kirol-ekintzaren baitan izan ziren probetan.

Hogeita bost kilometro lasterketa Mes-tafa Mafhoudek (1:58:10) eta Oihane Unzaluk (2:23:48) irabazi zuten, eta 14 kilometro lasterketa, Alberto Sánchezek (51:55) eta Fátima Urigüenek (1:10:57). Antolatzaileek azaldu zutenaren arabe-

ra, izena eman zuten korrikalarietako batzuk ez ziren lasterketara azaldu, eta beste batzuek bertan behera utzi behar izan zuten proba. Hala ere, 137 lagunek lortu zuten lasterketa luzea amaitzea, eta 169 lagunek, lasterketa laburra amaitzea. “Eguraldi ona izan genuen goizean, baina beroak eta hezetasunak ez zieten korrikalariei lagundu. Hornidura-postuak egon arren, parte-hartzaile batzuko dehidratatuta ailegatu ziren helmugara”. Beste aldetik, korrikalari bat erori zen eta zauria egin zuen aurpegian eta kolpe arinak hartu zituen. Nolanahi ere, ez zen istripu larria izan eta larrialdi-zer-

bitzuko langileek lekuan bertan artatu zuten. Lasterketez gainera, eta ohikoa denez, Ganguren Ziztu Bizian proba egin zen, eta mendi-martxa. Azken horretan 210 lagun inguruk hartu zuten parte. Era berean, 60 ume inguru eta euren senideak izan ziren txikientzat prestatutako zortzi kilometroko ibilaldian.

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin zuten ekintzari buruz, eta azpimarratu dute herrian egon zen giro ona eta polita. Ohikoa denez, txapelak eta garai-kurrak emateko ekitaldia egin zen, eta opariak banatu ziren parte-hartzaileen artean. Piper-jana ere egon zen.

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Txorierrri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

 **RADIO TAXI FEMADE**
Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09** 

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE

“Behar banaute, laguntzen jarraituko dut”

PILI GORBEA
Boluntarioa



Antolatzaileen esanetan, boluntarioen lana eta inplikazioa ezinbestekoak dira kirol-ekintzaren proba guztiak ederto atera daitezten. Aurtan, esaterako, 50 boluntario inguru ibili dira Lezamako Mugetatik mendi-lasterketan eta -martxan, eta horietako bat Pili Gorbea izan da, abenduan 77 urte beteko dituen emakume aktiboa eta kementsua.

Pili hasiera-hasieratik dabil boluntario Lezamako Mugetatik mendi-ibilbidean eta lasterketan; dagoeneko 18 urte pasatu dira. “Herri-ekimena da. Antolatzaileek gogo handia dute, baina laguntza gutxi, eta probaren egunean bertan zein aurreko egunetan gauza asko egin behar dira: ibilbidean zehar markak ipini, bidegurutzeetan egon, trafikoa kontrolatu, hornidura-postuetan egon... Hortaz, boluntario asko behar dira”. Laguntzeko gogoak bultzatu zuen ekimenean parte hartzera. Gainera, kirol-probak harreman estu-estua du bere zaletasun handiarekin, hots, mendiarekin. “Gaztetan, askotan joaten nintzen

mendira, baina umeak izan nituenean utzi nion mendira joateari. Gero, erretiroa hartu, eta berriro ekin nion zaletasunari: pasieran ibiltzen hasi nintzen, kanpora irte... Izan ere, mendiko bidaiarik onenak etapa honetan egin ditut: Galiziako Costa Da Morte, Menorcako Itzulia, Ciden bidea... Lezamako inguruetan ere ibili ohi naiz lagun batekin”.

Denetariko lanak egin ditu probaren aurreko edizioetan, baina aurtan lehen aldiz izan du ibilbide osoa egiteko aukera, “erratz-auto” ibili delako. “Parte-hartzaile guztiak irten ondoren, beste boluntario bi eta hirurok irten ginen eta ibilbide osoa egin genuen oinez. Euren atzetik joan behar da, baten bat galtzen bada ere, zerbait gertatzen bada ere... Baina aurtan ez dugu inongo arazorik izan. Azkenean, ibilbide osoa ikusi ahal izan dut, eta parte batzuk apur bat zorrotzak direla pentsatzen dut. Nolanahi ere, ibiltari guztiek izan dute maila”. Inoiz mendi-ibilbidean parte hartzeko gogoz gelditu den galdetu

diogu, eta baietz erantzun digu, buruan duen aukera dela. “Ea datorren urtean edo hurrengoetan boluntario gehiago dauden eta liberatu ahal gaituzten!”.

Dena dela, adierazi digu boluntario ahal arte ibiliko dela eta deitzen dioten guztietan lagunduko duela. “Oso pozik nago, herrian inplikatzeko modua delako, naturan egoteko modua, kirola egiteko modua... Gainera, natura zaintzeko modua ere bada, bideak garbitu behar direlako, sastrakak kendu... Lan horiek guztiak antolatzaileek egiten dituzte probaren aurreko egunetan, eta gero, boluntariok dagokigun postuan izan behar dugu probaren egunean... Behar banaute, laguntzen jarraituko dut, eta ibiltzea asko gustatzen zaidan arren, berdin dit zein zereginetan ipini: behar dena egingo dut”. Aipatu duenez, boluntarioen lana ezinbestekoa baita, kirol-ekintza primeran atera ahal izateko. “Lan gogorrena eta inportanteena antolatzaileek egiten dute aurretik, baina horrezaz gainera, sariak eta opariak prestatu behar dira, egunean bertan izena emateak kudeatu... eta hasieran esan ditudan lanak egin. Lan itzela da!”.

Mendi-probaren inguruan sortzen den giro aparta ere azpimarratu du lezamarrak. “Plaza jendez gainezka izaten da, musika ipintzen da, piperrak egiten dira txosnan, zer jan eta edan ere egoten da... Dena batzen denean, boluntariok bazkaria egiten dugu antolatzaileekin batera, eta primeran pasatzen dugu”. Era berean, nabarmendu du ekimenaren garrantzia. “Ekimen bikaina da eta oso ondo antolatzen dute. Garrantzitsua da herriarentzat, Lezama kanpoan ezagutzera ematen delako eta jendeak ikusten duelako Athleticez gainera beste gauza batzuk ditugula. Parte-hartzaileek ere estimatzen dute: lagun asko etortzen dira urtero, hainbat herritakoak, eta denboraldia hasten denez, haientzat ere zelan dabilzan ikusteko modua da”.

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUM SARRAILADINTZAN ETA SEGURITASUNAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajerlatxorierri.com
www.cerajerlatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lorja
48160 Deno



JOANES CAMARA Gizarte-teknikaria

EMAUS

Laguntza teknikoei buruzko ikastaroa

PAI Bitartean zerbitzuak urteak daramatza Bultzatu Fundazioarekin elkarlanean. Hori laguntza teknikoak jaso eta maileguz emateko doako ekimena da eta aitzindaria da Bizkaian. Hau da, Elikagaien Bankuaren ereduari jarraituta, Bultzatu Fundazioak martxan ipini du Laguntza Teknikoen lehen Udal Bankua (BAT). Helburua da partikular eta erakundeen artean laguntza teknikoak jasotzea, beharrianak dituzten pertsonen laguntza ematen dieten erakundeen bidez doako maileguak egiteko.

Horrela, orain dela bost urte, fundazio biek kolaborazio-hitzarmena sinatu zuten elkarri laguntzeko: Bultzatuk lagun-

tza teknikoak eskaintzen ditu, eta Emaús bitartekoa da eskaerarako eta materiala biltegitzeko eta lagatzeko. Ekimenaren harira, aurrean laguntza teknikoak erabiltzen ikasteko tailerra egin dugu Derioko Kultur Birikan. Bertan, BATEko adituek erakutsi zituzten, besteak beste, gaur egun dauden laguntza-motak, ereduak, erabiltzeko moduak eta produktu berriak. Hortaz, eta ikuspegi praktikoa batetik, bertaratutakoek esparru honetan duten ezagutza hobetzeko aukera izan zuten. Deialdiak oso harrera ona izan zuten txorierritarren aldetik, eta azpimarratu beharra dago parte-hartzaileen artean Gure Señeak elkarteko kideak izan zirela. Gure Señeak Derioko elkarte da

eta bere helburua da gaixotasun arraroa duten edota desgaitasun berezia duten umeen bizi-kalitatea hobetzea. Era berean, haiekiko eta beren familiekiko elkartasuna bultzatzen dute.

Tailerrari esker, zenbait pertsonak aukera izan dute Bultzatu Fundazioak eskaintzen dituen prestazioak zuzenean ezagutzeko. Gainera, PAI Bitartean zerbitzuak Derioko familia bati lagundu dio fundazioaren zerbitzu batzuk ezagutzen eta eskatzen. Lerro hauetatik, interesa duten guztiak animatu nahi ditugu, informazio gehiago eskuratzeko, Bultzatu Fundazioarekin harremanetan ipintzera edo Emaús Gizarte Fundazioak Derion duen eguneko zentzora hurbiltzera.

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Birkaiko Txakolina
Dentistia eta ortodontia

Goitioitza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Krimasajak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierritar bidea, 9 - Loja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B
48150 SONDIKA


634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

TEKNOLOGIA

Urre-hidrogenoa

XABIER DIAZ

FREEPIK / VECTOR_CORP



Hidrogenoa modan dago. Izan ere, erregai moduan erabiltzen bada, ura baino ez du igortzen, eta ditugun gas naturalaren azpiegiturak, egokitzapen gutxi batzuk eginda, baliagarriak dira hidrogenoa gorde, garraiatu eta erabiltzeko. Gainera, makina elektrikoek –auto, autobus edo trenak¹ tartean– hidrogenoa kontsumitzen duten erregai-pilaz hornitu daitezke, litioa bezain metal urriak erabiltzen dituzten baterien ordez.

Hala ere, aurretik idatzitako beste artikulu batean aipatu nuen bezala², arazoa hidrogenoaren ekoizpenean dago: aurrerapausoak egiten gabiltzan arren, oraindik ere hidrogenoa ekoizteko erarik merkeena eta errazena da hura hidrokaburoetatik lortzea, prozesuan karbono-oxidoa askatuz. Horregatik, badira iturri geologikoa duen hidrogeno bila dabilzanak; hau da, naturan berez eta egoera puruan agertzen den hidrogeno bila: urre-hidrogenoa.

Edozelan ere, ez da batere erraza naturan hidrogenoa horrela aurkitzea, azkar-azkar konbinatzen baita. Gehienetan, konposatuetan agertzen da, esaterako, lehen aipatutako hidrokaburoetan. Dena den, badira hidrogenoa produktu duten zenbait prozesu: adibidez, burdinan aberatsak diren haitzak urarekin elkartzen direnean edo ura erradiolisi bidez –hau da, erradiazio-iturri naturalen bidez– hidrogenoan eta oxigenoan deskonposatzen denean.

ORDUAN, ZEREN ZAIN GAUDE?

Hasteko, ez da erraza leku horiek loka-

lizatzea, eta hidrogenoa ondo isolatuta egon behar da, ihes egin ez dezan edo beste konposatu batzuekin erreakzionatu ez dezan. Boloniako unibertsitateko Deep Carbon Laborategiak, esate baterako, DeepSeep egitasmoa³ du martxan, eta ikertzen dabilza subdukzio-eremuetan sortzen diren hidrogenoa eta metanoa eta horien ekoizpenak biosferan eta bereziki karbonoaren zikloan duen eragina.

Beste alde batetik, nahiz eta ikuspegi industrialetik erraza izan (atera eta kito!), zeintzuk izan litezke milioika urteetan egonkor eta isolatuta egon den gas hori ateratzearen arazo eta ondorioak? Badakigu, adibidez, zenbait organismo hidrogenoarekin metanoa edo hidrogeno sulfuroa sortu dezaketela. Gainera, kasuz kasu aztertu beharko da poltsa horiek hustutzeak egonkortasun geologikoa izan zezakeen eragina.

DISTIRA GUZTIAK EZ DIRA URRE

Itxura ona duen albistea da urre-hidrogenoa, etorkizun garbiago baterako aukera berria baita. Hala ere, ez da ondorio txarrik ez duen energia-iturria eta guztiz berdea ere ez da. Eta albiste ona izanik ere, espero dezagun industriak ikerketari aurrea ez hartzea, bestela kalteak onurak baino handiagoak izan daitezke.

¹Hidrogenozko tren: bide berriak esploratzen, Xabier Artaetxebarria, Zientzia Kaiara, 2024-04-23 labur.eus/aikorH00

²Hidrogeno berdea, Xabier Díaz Silvestre, Aikor, 2021-04-27, labur.eus/aikorH01

³ERC CoG DeepSeep, labur.eus/aikorH02

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 – 639 58 25 47

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T. 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T. 944 521 370

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jaragun Facebook-en



WIKIMEDIA / CILLAS

@TXIRIBITA_MUNDI

HERBARIOA

Berbena limoiusaina

Aloysia citrodora. Europara Hego Amerikatik ekarri zuten XVIII. mendean, eta harrezkero oso landare preziatua da. Leku epeletan zuhaitzxo-itzura hartzen du, bi metroko luzera izan ahal duena, eta urte asko bizi daiteke. Usain handia du, eta hostoak igurzten ditugunean, limoi-usain gozoa du.

Uda hasieran loratzen da. Hostoak bigarren urtetik aurrera batzen dira, loraketa baino lehen, konposatu guztiak dituztela bermatzeko. Gomendagarria da bildu baino 15 egun lehenago ez ureztatzea: horrela bermatuko dugu aroma bizia eta esentzia-olioen kontzentrazio handia duela. Zurtoinak luze moztu behar dira, eta leku ilun eta siku batean buruz behera eskegi. Hostoak, bestalde, sikatzeko erretilu batean sikatu daitezke. Sikatzen direnean, poteetan edo papezko poltsetan gorde ditzakegu. Nolanahi ere, hosto freskoak ere gorde ditzakegu, eta gure beharrezan arabera erabili.

SUKALDEAN

Hosto freskoak erabili ditzakegu ortuariak, arrainak, hegaztiak eta postreak –marmeladak, jeleak, budinak...– usaingozatzeko. Infusioak oso zapore atsegina

du, eta otorduen ostean edaten badugu, lagunduko digu digestioa egiten. Infusioa bero edan dezakegu, edari aromatiko moduan, edo hotz, edari freskagarri moduan.

Berbena limoiusain-likorea: 50 g hosto siku, litro bat pattar/vodka/ron eta 150 g azukre edo ezti (bakoitzaren gustuaren arabera). Hostoak pattarrean beratu beharko ditugu bi astean, eta egunero eragin. Iragazi, eta ondo sakatu beharko dugu. Azukrea gehitu, eta ondo nahastuko dugu. Botilaratuko dugu, etiketa ipiniko diogu botilari, eta 15 egunean izango dugu jalkitzen.

PROPIETATE SENDAGARRIAK

Digestioari laguntzen dio. Kolikoak eta haizeak arintzeko baliagarria da: egunean hiru katilukada edatea gomendatzen da. Era berean, lasaigarria da, eta urduri gaudenean ere gomendagarria da

hiru katilukada edatea. Azkenik, hilekoaren mina arintzeko lagungarria da, tintura edo infusioa edaten badugu.

Hilekoaren mina arintzeko tintura: 600 ml graduazio handiko alkohol (uxuala, vodka...) eta 100 g berbena limoiusain-hosto siku. Hostoak alkoholean beratuko ditugu bi astean, leku ilun eta siku batean. Egunean bi aldiz eragingo dugu, osagaiak ondo nahasi daitezten. Bi asteak pasatzen direnean, iragaziko dugu eta ontzi opaku batean gordeko dugu, leku ilun eta siku batean. Egunean 15-20 tanta edan behar dira.

Berbena limoiusaina batez ere infusio moduan hartzen da. Oso gustu ona eta zapore atsegina du. Gainera, zapore desatsegina duten edo mingotsak diren infusioak hobetzeko erabili daiteke.

Infusioa: ura eta hiru hosto. Lapiko batean katilukada bat ur berotuko dugu. Ira-

kiten denean, sua amatatuko dugu eta hiru hosto gehituko ditugu. Edan baino lehen, hamar minutuan izango dugu jalkitzen.

ERABILERA KOSMETIKOAK

Limoi-aroma duenez, oso preziatua da kosmetikoak eta perfumeak egiteko. Al-mendra-olioarekin nahasten badugu, bikaina da masajeak egiteko. Usain lasaigarria du, eta, gainera, eltxoak uxatzen ditu.

BESTE ERABILERA BATZUK

Aroma biziko landarea denez, erabili daiteke autoa, poltsikoak edo etxea usaingotzeko.

ORTUAN

Bere loreak oso erakargarriak dira erlentzat eta laboreetarako onuragarriak diren beste intsektu batzuentzat. Gainera, hostoak erabili daitezke izurriak kontrolatzeko uxagarriak egiteko.

KONTRAINDIKAZIOAK

Ez da gomendagarria epe luzean erabiltzea, arazo gastrikoak sortu ditzake eta. Haurdun daudenek neurritz erabili behar dute.


Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zer-bait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezzen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



WIKIMEDIA / PIERRE-JOSEPH REDOUTÉ

TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

BABESPEKO APARTAMENTUAK

EGONALDIAK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

ZURE NEURRIRA



SUKALDARITZA

Arroza perretxikoekin

**Osagaiak (lau lagunentzat):**

320 g arroz
200 g perretxiko
Bi berakatz-atal
Kipula bat
100 g urdaiazpiko
200 ml ardo zuria
200 g gazta fresko
Koilarakada bat perrexil
Olioa

Prestatzeko era:

Perretxikoak garbitu, zatitu, eta gordeko ditugu. Urdaiazpikoa dadotan ebakiko dugu eta bost minutuan frijituko dugu perretxikoen erdiarekin batera. Arroza gehitu, eta pare bat aldiz eragingo dugu. Ardo zuria bota, eta lurruntzen denean botako dugu litro bat ur. Beste aldetik, berakatzak gorrituko ditugu zartagin

batean. Ondoren gehituko ditugu perretxikoen beste erdia, kipula eta perrexila. Sutan bost minutuan izango dugu, eta arrozari botako diogu, egosten amaitzeko. Bitartean, gazta xerratan ebaki, eta plantxan gorrituko dugu. Arroza eginda dagoenean, lau plateretan banatu, eta gainean gazta ipiniko dugu.

Olo-krema kalabazarekin eta sagarrarekin

**Osagaiak (lau lagunentzat):**

400 g kalabaza
Bi sagar
20 g gurin
100 g olo-irin
Koilarakada txiki bat ezti
4 dl almendra-esne
Bi koilarakada kalabaza-hazi
Gatza
Piperbeltza

Prestatzeko era:

Sagarrak eta kalabaza zurituko ditugu eta haziak kenduko dizkiegu. Dadotan ebakiko ditugu. Zartagin batean, sutan, 10 g gurin eta koilarakadatxo bat ezti ipiniko ditugu. Sagarra eta kalabaza gehitu, eta su motelean bigunduko ditugu. Eginda daudenean, sutik kenduko ditugu. Kazola batean ipiniko ditugu sobera dugun gurina eta olo-irina. Egurrezko koilara

erabilita eragingo dugu. Almendra-esnea gehituko dugu eta eragiten jarraituko dugu. Piperbeltza bota, eta loditzen denean kenduko dugu sutatik, eta sagarra eta kalabaza-nahasketari gehituko diogu. Nahi izanez gero, esne apur bat gehitu ahal dugu, testura likidoagoa izateko. Kalabaza-haziak gehitu, eta mahaira aterako dugu.

DENBORAPASA

Zazpi ezberdintasunak

Topatu zazpi ezberdintasun Erandioko argazki honetan. Zer falta da? Zer dago sobera? Zer adaltuta?



URRIKO AGENDA

5, zapatua

Surf-ikastaroa TXORIERRI Berbagaztek antolatua: 747 447 579 eta berbala-gun.txorierri@gmail.com

6, domeka



10:00 **Auto klasiko IX. Kontzentrazioa LOIU** Plazan

9, eguaztena

18:30 **Zaintza-lanen diagnostikoa LARRABETZU** Ludoteka gaineko gelan

11, barikua

Surf-ikastaroa TXORIERRI Berbagaztek antolatua: 747 447 579 eta berbala-gun.txorierri@gmail.com

15, martitzena

19:30 **Zinekluba: Geuretik Sortuak ekimenaren laburmetraiak LARRABETZU** Ludoteka gaineko gelan

17, eguena

19:00 **Literaturaz Berbetan: Francesco Pasqualeren bosgarren arima, Unai Elorriaga** berbalagun **LARRABETZU** Ludoteka gaineko gelan

18, barikua

18:00 **Ez gara jaitsiko** Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna **ZAMUDIO** Kiroldegian, Lagatzuk antolatua

21:00 **Bertso-afaria: Berea Ibarzabal eta Aitor Sarriegi LARRABETZU** Hori Bai gaztetxean, Itallenek antolatua

19, zapatua

20:00 **Kultura Bere Bidean ZAMUDIO** Kiroldegian, Lagatzuk antolatua

20, domeka

Goizez **Bertoko Produktuen Azoka LARRABETZU** Plazan

24, eguena

18:30 **Zaintza-lanen diagnostikoa LARRABETZU** Ludoteka gaineko gelan

25, barikua

Skate-ikastaroa TXORIERRI Berbagaztek antolatua: 747 447 579 eta berbalagun.txorierri@gmail.com

Argazki- eta jantzi-erakusketa: Bizkargi, 10 urtez dantzan **LARRABETZU** Anguleri kultur etxean, azaroaren 10era arte

26, zapatua



17:00 **Sakatu elektrotxarangen X. urteurrena DERIO** Baserri Antzokian

27, domeka

18:30 **Domekak Hori Bain: Esanezin LARRABETZU** 10 euro

31, eguena

Akarbaltz Gaua LARRABETZU

SAN MIGEL JAIK, DERION

3, eguena

17:30 **Umeentzako mozorro-lehiaketa**

18:00 **Partyman diskofesta eta aurpegia margotzea**

4, barikua

19:00 **Euskal dantzak: Lainomendi**

20:00 **Txitxi-burruntzia**

00:00 **Gau berezia: 60. urteurrena. Dj-ak, jolasak eta sorpresak**

02:00 **Montaditoak**

5, zapatua

10:00 Goizeko traka.

14:00 **Indaba-jana**

16:00 **Bingo berezia**

20:30 **Umeentzako play-back lehiaketa**

21:00 **Play-back lehiaketa**

00:30 **Berbena: Vulkano orkestra**

Ondoren, **Dj Party**

6, domeka

10:00 **Goizeko traka**

12:30 **60. urteurrenaren argazki-erakusketa**

13:00 **Bermuta**

15:30 **Jai-batzordearen bazkaria**

17:30 **Konpartsen arteko jolasak**

19:00 **Jaietako argazkiak eta bideoak**

19:30 **Txokolatada**

20:00 **Sariak banatzea eta jai-amaiera**

zamudion, kultura bere bidean

KON TZER TUA

Urriak

19 20:00

Zamudioko
kiroldegian

Lagatzuk

25
urte

IÑIGO ETXEZARRETA
ETS

FRANCIS DIEZ
DOCTOR DESEO

IÑAKI ORTIZ DE VILLALBA
BETAGARRI

ASIER-IÑIGO
GOZATEGI

GORKA SARRIEGI-URBIL ARTOLA
SOROTAN BELE

ROBERTO MOSO
ZARAMA

AMAIA OREJA-KRIS SOLANO
-MAIXA
AMAK

ENERITZ-EDURTZETA
HAIZE ARROSA

JUANTXU
JOKALDI

EIDER SAEZ

MIKEL MARKEZ

ETXAHUN LEKUE

KUKAI DANTZA KONPAINIA




SARRERAK SALGAI :

WWW.ZAMUDIO.EUS (JARDUERAK ETA BONOAK)

ZAMUDION : LIBURUDENDAN

DERION : BASERRI ANTZOKIAN ETA HIRU TABERNAN

LARRABETZUN : FOTERI TABERNAN



SUKALDEAK

insukaldeak.com

HOBETZEKO ALDATZEN DUGU CAMBIAMOS PARA MEJORAR



*Lehen
Antes*

Kitchen sukaldeak
Derio



*Orain hau da gure marka berria
Ahora esta es nuestra nueva marca*



SUKALDEAK

insukaldeak.com

Sukaldeetan lehen bezain adituak gara, baina beste izen batekin.
Garaiak aurrera doaz, gizartea aldatu egiten da eta
guk eboluzionatu egiten dugu.

Seguimos siendo los mismos expertos en cocinas aunque
con diferente nombre. Los tiempos avanzan, la sociedad cambia
y nosotros evolucionamos.

IN Sukaldeak BILBAO

Lehendakari Aguirre 175-177
48015 Bilbao

T. 94 402 82 54

Horario:

Lunes a viernes: de 9:00 a 13:00h y de 16:00h a 20:00h
Sábado: Cita previa

IN Sukaldeak DERIO

Txorierriko etorbidea 9 Edificio Arteaga. 48160 Derio

T. 94 656 85 69

Email: info@insukaldeak.com

Web: insukaldeak.com

Horario: Lunes a viernes: de 9:00 a 19:00 ininterrumpido

Sábado: Cita previa